



Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

BERDINTASUN, JUSTIZIA  
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,  
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

# ADINEKO EMAKUMEEKIN

lan egiteko

## GAKOAK

EAE-Euskal Autonomia  
Erkidegoko Emakumeen Etxeekin  
egindako proiektua





# **ADINEKO EMAKUMEEKIN lan egiteko GAKOAK**

EAE-Euskal Autonomia Erkidegoko  
Emakumeen Etxekin egindako proiektua

**Mari Luz Esteban**

**Irantzu Fernández**

**Ixone Fernández de Labastida**

AFIT-Antropologia Feminista Ikerketa Taldea  
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Izenburua: Adineko emakumeekin lan egiteko gakoak. EAE-Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen Etxeekin egindako proiektua.

Egileak: Mari Luz Esteban, Irantzu Fernández eta Ixone Fernández de Labastida.

Argitaratzailea: Emakunde/ Instituto Vasco de la Mujer.  
C/ Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz

Maketatzailea: EPS- Eusko Printing Service , S.L

Data: 2021eko urtarrila


Ale kopurua: 900

L.G.: LG G 00380-2021

ISBN: 978-84-89630-58-1

## AURKIBIDEA

AURKEZPENA .....	7
1. SARRERA .....	9
2. BITARTEKO METODOLOGIKOAK .....	12
3. TESTUINGURU TEORIKOA .....	16
4. AURREKARIAK: ADINEKO EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO JARDUERAK EMAKUMEEN ETXEETAN ETA UDALERRI MAILAN .....	19
5. 'ADINEKO EMAKUMEA' KATEGORIA: ZAHARTZEA ZER DEN ETA NOLA IZENDATU .....	22
6. ADINEKO EMAKUMEAK COVID-19 GARAIAN .....	24
7. JARDUTE ARDATZAK ETA GAIAK .....	25
7.1. Adinkeria eta eskubideen urraketa zahartzaroan .....	25
7.2. Prekariatatea eta pobrezia .....	26
7.3. Zaintza-lanak eta zerbitzu publikoak .....	27
7.4. Indarkeria matxista eta bestelako indarkeriak .....	29
7.5. Elkarbizitza, elkarren arteko harremanak eta bakardadea .....	30
7.6. Osasuna, ongizatea eta sexualitatea .....	31
7.7. Teknologia berriak eta arrakala digitala .....	32



7.8. <i>Plazera eta aisialdia</i> .....	33
7.9. <i>Adineko emakumeen aitortza, memoria eta genealogia feminista</i> .....	34
8. ADINEKO EMAKUMEEKIN LAN EGITEKO DEKALOGOA .....	35
9. JARDUTE EREMUAK .....	37
10. BIBLIOGRAFIA .....	38

Adineko emakumeen aurkako indarkeria matxista ikusizina dela kontuan hartuta, Emakundek uste du guztiz beharrezkoa dela matxismoak eta adinkeriak bat egiten duten indarkerian jartzea arreta, aztertu beharrezko berezitasunak dituelako: inoiz autonomia ekonomikorik izan ez duten emakumeen aurkako indarkeria da; emakume horiek sistema patriarkal batean sozializatu dira, non senarrei baimena eskatu behar zieten lan egiteko, kontu korronte bat irekitzeko edo atzerrira joateko; eta emakume horietako gehienak beste pertsona batzuk zaintzen aritu dira, aisialdirako eta norberaren gozamenerako denborarik eduki gabe. Faktore horiek eta beste batzuek, zalantzarik gabe, emakume askoren bizitzak baldintzatu dituzte; izan ere, ez dira sartu indarkeria horren biktimei buruzko iruditeria kolektiboan, indarkeria matxista jasan arren.



Adineko emakumeei eragiten zaien indarkeriari erreparatzea da txosten honen helburuetako bat, «*Adineko emakumeekin lan egiteko gakoak. Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen Etxeekin batera egindako proiektua*»; Emakumeen Etxeekin lankidetzan egin da azterlan hori, 2020ko udaberrian, Covid-19aren ondoriozko alarma-egoera bete-betean bizi genuenean. Eta azpimarratzekoa da hori; izan ere, krisi-garaian, beste behin ere agerian geratu da Emakumeen Etxeak segurtasun-guneak eta erreferenteak direla EAEko emakumeentzat, adineko emakumeak barne, hausnartzeko eta konponbideak bilatzeko orduan.

Emakunderen agendaren parte dira adineko emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea, kasu horiek azkar detektatzea eta haien behar eta interesen arabera esku-hartze instituzionala eragitea. Politika eta esku-hartze zehatzak gauzatu nahi zaizkien pertsonen ahotsa kontuan hartzea ezinbestekoa denez, Emakumeen Etxeak aliatu bikainak dira helburu hori lortzeko, profil oso desberdinak dituzten adineko emakumeak horietara hurbiltzen direlako edo horietan parte hartzen dutelako.

Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu Emakumeen Etxeei eta haien erabiltzaileei txosten hau egiten parte hartzeko erakutsi duten prestutasunagatik, bai eta UPV/EHUko AFIT-Antropologia feminista Ikerketa Taldeari ere, txostena egiteko eman digun laguntza ordainezinagatik.

Espero dugu azterlan honek balio izatea adineko emakumeen aurkako indarkeria matxistaren gako batzuk erakusteko eta, horrela, prebentzioan eta arretan modurik egoki eta eraginkorrean jarduteko.

Izaskun Landaida Larizgoitia  
Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria





## 1. SARRERA

Proposamen hau garatzeko jatorrizko ideia Marienea-Basauriko Emakumeen Etxean sortu zen. Bizkaiko herri horretako ahalduntze-eskolako<sup>1</sup> ikastaro eta jardueretan parte hartu ohi dutenen artean hainbat emakume nagusi daude. Horrez gain, azken urteotan, gero eta adin horretako emakume gehiago hurbildu dira etxeak eskaintzen dituen baliabide eta zerbitzuetara, horietako zenbaitzuk Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen SATEVI-Etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izan diren emakumeentzako informazio eta arreta-zerbitzutik bideratuta. Bestalde, COVID-19 garaia areagotu egin ditu emakume asko bizitzen ari diren isolamendua eta babesgabetasuna.

Dena den, esandako guztia ez da Basauriko fenomeno eskusiboa; antzeko egoera aurkitzen dugu EAEn dauden Emakumeen Etxe eta Txoko<sup>2</sup> guztietan<sup>3</sup>. Hain zuzen ere, EE horietan bildu den eskarmentu eta ondare guztia ahalik eta ondoen biltzeko eta ikusarazteko ahalegina egingo dugu lan honetan.

Aldi berean, Emakundek adineko emakumeenganako indarkeriaren prebentzioa barne hartuta dauka haren agendan 2020. urtetik. Halaber, jasota gelditu da EAEko VII. Berdintasun Planean eta Emakunderen Jarduera Planean.

Feminismoaren baitan “nola zahartzen da emakume izanda?” galderaren inguruko gogoeta betidanik egon da<sup>4</sup>, eta, ikusi dugunez, Emakumeen Etxeetan, adineko emakumeei zuzendu-

---

1 Izen desberdinak erabiltzen dira ahalduntze-eskolak deitzeko. Basaurikoa izan zen lehena, eta ‘jabekuntza-eskola’ deitzen da. Gaur egun, ‘jabetze-eskola’ terminoa ere erabiltzen da. Guk ‘ahalduntze-eskola’ lehenetsi dugu, izen ofiziala baita. Bestalde, udalerrri batzuetan, Basauri eta Gasteiz kasu, ahalduntze-eskola Berdintasun Arlotik sortu zen, emakumeen etxea bera baino lehenago.

2 Aurrerantzean bai Emakumeen Etxeak bai EE laburdura erabiliko ditugu.

3 Emakumeen etxe eta txokoez ari garenean, espazio horien barnean biltzen diren emakumeen elkarteak, berdintasun-arloak eta -zerbitzuak, ahalduntze-eskolak eta kudeaketa-eredu anitzak kontuan izango ditugu.

4 Bi adibide oso desberdin ekartzearren, bi liburu aipa daitezke: Simone de Beauvoirren *La vejez* (1983[1970]) eta Paula B. Doress-Worterssek eta Diana Laskin Siegalek *The Boston Women’s Health Book Collective* delakoarekin batera idatzitako *Envejecer juntas* (1993[1987]).

tako ikastaro eta jardueraz gain, arlo horretan erantzun gabe dauden beharrak identifikatu dira. Halere, argi eta garbi esan behar da hutsune handia dagoela emakumeen memoria, ahotsak eta behar partikularrak jasotzen dituzten diagnostiko eta jardute-lerro sistematizatuak dagokienez.

Beraz, arlo honetan, Emakunderen eta Emakumeen Etxeen interesak bat etorrita, zerbait egiteko beharra identifikatu zen 2020ko udaberrian eta, urte bereko uztailean, lan honetan azalduko ditugun diagnostikoa eta egitasmoaren diseinua martxan jartzeko erabakia hartu zen. Proposamen honen abiapuntu behinena politika feministetan adinaren, eta, zehazkiago, zahartzaroaren aldagaia erdigunean jartzea da. Bide horretan, funtsezkotzat hartu dira, batetik, adineko emakumeen berariazko elkarteetan nahiz EEetan bildu den ezagutza eta eskarmentu guztia aintzat hartzea eta, bestetik, instituzioen arteko aliantza bultzatzea.

Nortzuk dira EEetara hurbiltzen diren emakume nagusiak? Lehenik eta behin, eta aurrerago sakonduko den bezala, azpimarratu behar da adineko emakume horien profila oso anizkoitza dela eta, beraz, aniztasuna dela kolektibo horren ezaugarri nagusietako bat. Dena den, sistematizatzeko aldera, hiru multzo handi bereiziko genituzke: (1) batetik, emakumeentzat propio diren elkarteetako kideak leudeke, nahiz eta haien artean desberdintasun handiak egon. Elkarte horiek ere askotarikoak dira: talde eta asanblada feministak, lehengo Emakumeen Sustapen Zentroetatik eratorritako taldeak, elkarte soziokulturalak edota etxeko andreen elkarteak, pentsiodunen kolektiboak edo emakume alargunen elkarteak, besteak beste. Multzo honetako emakumeak, oro har, aspaldi hasi ziren Emakumeen Etxetara hurbiltzen, feminismoak inpaktu gehien izan duen herrietan, batez ere, eta haien partaidetza zabala izan ohi da, bai kanpaina eta ekintza feministetan zein berdintasun-kontseiluetan edo antzeko espazio ofizialetan, bai jabekuntza- edo ahalduzko-ekoletako ikastaro eta jardueretan. (2) Bigarren taldean parte-hartze sozial mistoa duten emakumeak egongo lirateke, herriko beste elkarte edo erakundeetan inplikaturik daudenak, dela partidu politikoetan, dela mota askotako gizarte- eta kultur elkarteetan, dela erretiratuen elkarteetan, esate baterako. Hori bai, multzo hau eta aurrekoa ez daude guztiz bereizita, zeren haietako askok aurreko atalean eta honetan dauden elkarteetan aldi berean parte hartzen baitute. (3) Hirugarren taldea parte-hartze sozialik ez duten adineko emakumeena izango litzateke, EEetara alaben, lagunen edo ezagunen, edo profesionalen eskutik heldu ohi direnak, horietako batzuk generoarekin loturiko ondoez desberdinen ondorioz.

Proposamen honen abiapuntuan zeuden helburu orokorrak lau ziren:

1. Emakumeen genealogia feminista eraikitzea, adina kontuan izanik. Horretarako, udal-lerrian adineko emakumeen esperientzia, ezagutza eta egin duten eta egiten ari diren ekarpen guztia barne hartuta dagoen aztertuko da, eta, hala ez bada, ondare hori berreskuratuko da. Alde batetik, memoria hori ez ahanzte da kontua; bestetik, eta aldi berean, adineko emakumeen agentzia indibidual eta kolektiboa aitortzea, babestea eta indartzea.

2. Gaur egungo baliabideen bitartez, ez sozializatzeko espaziorik, ez beharrianak betetzeko modurik aurkitzen ez duten adineko emakumeen beharrak antzemateko eta haiei bidelagun egiteko egitasmo bat abiaraztea. Oraindik sozialki edo politikoki parte hartzen ari ez diren emakumeen antolakuntza helburu duen egitasmo honetan, haiek izango lirateke agente eta koprotagonista.
3. Instituzioen kanpainetan adineko emakumeak bistaratzea, haiekin eta haiengandik lan eginda, urteetan emakumeen beste sektore batzuekin egin izan den bezala, emakume gazteekin, kasu.
4. Belaunaldiarteko sareak indartu edota sustatzea, historiak (eta "orainak") berreskuratze eta komunikatze eta elkarren arteko parte-hartze kolektibotik. Horren haritik, interesgarria da 2018 eta 2019ko martxoaren 8ko greben esperientzia jasotzea; belaunaldiarteko konplizitatea ezaugarri izan zuten ekimenok, hain zuzen ere.

Hauek izango lirateke berariazko helburuak:

1. Orain arte oro har egindako jardueraren diagnostikoa burutzea, berariaz Emakumeen Etxeak martxan dauden udalerrietan. Horretarako, batetik, udalerrri horietan adineko emakumeekin lotutako jardun-lerroei buruzko informazio guztia jaso behar da, eta, bestetik, ahalik eta datu kopururik handiena, udalerrri horietako adineko emakumeen elkarteei eta berariazko parte-hartze sozial eta politikoari buruz.
2. Adineko emakumeen hausnarketak eta ikuspuntuak jasotzea, haiek ere diagnostikoaren prozesuan eta proiektuaren eraikuntzan partaide izan daitezten. Horretarako, askotariko profilak eta egoerak hartuko dira kontuan, bai eta udalerrri bakoitzaren idiosinkrasia ere.
3. Udalerrietako berdintasun teknikariak edota Emakumeen Etxetako ordezkariak bilduko dituen lantaldea osatzea, eta honakoak abiaburu izatea: (1) etxe horietan metatutako ezagutza; (2) aurreko helburuei buruzko informazioa; eta (3) hainbat udalerritan burutu diren bestelako proiektuen esperientzia, adibidez, Emakumeen Aztarnen Mapa<sup>5</sup>. Lantaldearen helburua askotariko errealitateak jasoko dituen berariazko proiektu kolaboratiboa elkarrekin diseinatzea izango da, askotariko errealitate eta profilak barne hartuko dituen, bai gaur egungoak, bai datozen urteetarako aurreikus daitezkeenak ere (prospekzio bat eginez). Proiektua 2021etik aurrera jarriko litzateke abian.

Proposamen hau burutu ahal izateko, ezinbestekoa izan da EAEko Emakumeen Etxetako ordezkariekin prozesu osoan mantendu dugun elkarlana. Zehazki, zortzi etxeren aholkularitza eta laguntza izan dugu: Arrasateko Emakume Txokoa, Azpeitiko Emakumeen Txokoa,

---

5 Proiektu hau Basaurin egin zen lehenengoz, baina geroago, Ermuan, Eibarren eta Ondarroan ere burutu zen, Zaida Fernández Pérezek gidaritzapean. Bertan, herriko emakumeek eta feministek iraganeko proiektuen jasoketa egin zen, elkarrizketen eta dokumentuen azterketaren bitartez. Ondoren, identifikaturiko ekintza nagusien aitortza ere egin zen, hainbat modutan.

Marienea-Basauriko Emakumeen Etxea, Eibarko Andretxea, Ermuko Emakumeen Topalekua, Gasteizko Sorginenea, Ondarroako Etxelila eta Urola Garaiko Emakumeen Txokoa. Horrez gain, eztabaida-taldeak egin ditugu zortzi udalerrri horietan, bertako adineko emakumeekin. Guztira, Emakumeen Etxeen inguruan mugitzen diren 46 emakumerekin hitz egiteko aukera izan dugu, eta haien iritziak eta eskarmentua funtsezkoak izan dira gure lana modu egokian burutu ahal izateko. Informazioa sakontze eta zabaltze aldera, beste hiru etxetako teknika-riak ere elkarrizketatu ditugu: Donostiako eta Erreterriako Emakumeen Etxeetakoak eta Hernaniko Plaza Feministakoak. Horien laguntza ere ezinbestekoa izan da. Eta, azkenik, informazio-bilketa osotu ahal izateko, udalerrri horietan guztietan zein oro har bildu ditugun zenbait dokumentu eta bibliografia ere kontuan hartu ditugu.

Lan honetako edukiak jarraian azalduko dugun moduan egituratu ditugu. Lehenik eta behin, hurrengo atalean, jarraitu dugun estrategia metodologikoa zein den azalduko dugu. Jarraian, "Testuinguru teorikoa" deitu dugun atala dator, non, arlo honetan nabarmendu diren zenbait autoreren lanengan oinarriturik, gure gizartean zahartzaroari buruz eta, bereziki, emakumeen zahartzaroari buruz dauden ideia, estereotipo eta beharrak bildu ditugun. Ondorengo atalean, orain arte Emakumeen Etxeetan eta udalerrri mailan adineko emakumeei zuzendutako jarduerak jaso ditugu, aurrekari modura. Ostean, 'adineko kategoria' bera aztertuko dugu, elkarrizketatu ditugun emakumeen ikuspegietatik abiatuz. COVID-19 garaian sortu da diagnostiko/proposamen hau, eta ez da kasualitatea izan garai honetan argiago gelditzea adineko emakumeek dituzten premiak eta zahartzaroaren inguruan dauden estereotipoak eta eskubide-urraketak. Hain justu, gai horri ere atal bat eskaini diogu. Atal horien guztien atzetik datozen hiru ataletan, emakumeen laguntzarekin identifikatu ditugun gaiak, gakoak (bederatzi ardatzetan multzokatuta) eta jardute-eremuak sartu ditugu. Azkenik, bibliografiarekin eta autoreen profil labur batekin, amaiera eman diogu lanari.

Diagnostiko honen azken xedea adineko emakumeekin lan egiteko lerro berri eta espezifiko baterako proposamena egitea da, Emakumeen Etxeetan zein orokorrean, berdintasun-politiken eta politika feministen baitan gaur egun dagoen hutsunea betetzen haste aldera.

## **2. BITARTEKO METODOLOGIKOAK**

Lan hau metodologia feministan planteatu diren ideiei jarraiki egin dugu (Martínez et al., 2014). Sarreran esan bezala, proposamen honen helburuak aurrera eraman ahal izateko, metodologia parte-hartzailea lehenetsi dugu eta, horretarako, zortzi Emakumeen Etxetako ordezkariak eta koordinatzaileak izan ditugu bidelagun prozesu osoan. Hau da, ikerketan inplikaturako subjektu guztien arteko elkarlana izan da ikerketa prozesuaren oinarria. Izan ere, metodologia horren bidez, kokapen teoriko eta praktikoa ezberdinetan dauden aktoreen arte-


ko harreman kooperatiboak, lankidetzak eta elkarrekotasuna bilatzen da (Roura et al., 2018). Horrela, ezagutza prozesu tradizionaletako ohiko botere harremanak eta hierarkiak gainditu nahi izan dira. Gizakien duintasuna, justizia soziala eta eraldaketa sozialerako konpromisoa erakutsi nahi izan da ikerketa proiektuaren kudeaketa partekatuarekin (ibidem).

Prozesu parte-hartzaile eta kolaboratibo honetan jakintzaren eraikuntza era demokratikoan eta kolektiboan ulertu nahi izan da. Horretarako, harreman horizontalak eraiki dira, ahots guztiak maila berean jarriz, jakintzen demokratizazioa eta horien arteko elkarrizketak gauzatze aldera (ibidem). Jakintza-moduak anitzak dira (bizipenezkoak, praktikoak...), eta horiek uztartzea eta jasotzea da helburua, ikuspegi prozesual eta erreflexibo batetik (ibidem). Jakintzaren eraikuntza ekintza kolektiboa da, eta horrela erakutsi nahi izan dugu lanean.

Ikuspegi hori aurrera eramateko, teknika zehatzak diseinatu eta gauzatu dira:

1. **Informazio bilketa orokorra.** Testuinguruari oinarritzko hurbilpena egiteko, EAEko 12 Emakumeen Etxekin harremanetan jarri ginen. Interesa erakutsi zuten etxeetara hurbildu ginen, eta bertako teknikari eta etxeen koordinatzaileei elkarrizketak egin genizkien. Guztira, 11 elkarrizketa izan dira, eta, sarreran esan bezala, horietako 8 etxetako ordezkariak proiektuan parte hartzea erabaki zuten: Arrasate, Azpeitia, Basauri, Eibar, Ermua, Gasteiz, Ondarroa eta Urola Garaia. Elkarrizketa horien bidez, EE horien egin-kizuna ezagutu eta txostenak eta dokumentuak jaso genituen. Horrez gain, ikerketan planteatutako gaien inguruan egindako ekintzak zehaztea eskatu zaie, eta lan honetan sistematizatu egin dira (ikus "Aurrekariak: adineko emakumei zuzendutako jarduerak Emakumeen Etxetan eta udalerrri mailan" atalaren amaieran dagoen informazioa). Gaiaren kokapen orokorra egiteko ere, zenbait instituziok adineko emakumei zuzendu dizkieten proiektuen eta ikerketen bilaketa egin da.
2. **Eztabaida-taldeak adineko emakumeekin.** Guztira, 8 eztabaida-talde egin dira, udalerrri bakoitzean bana. Eztabaida-taldeetan 62-88 adin tarteko 46 emakumek parte hartu dute. Profilarri dagokionez, erdiek baino gehiagok hezkuntza-maila altua dute, gehienek enplegua izan dute eta orain asko erretiroa hartuta daude. Oro har, emakume aktiboak dira, eta gehienek EEan edo feminismoan eskarmentua dute. Euren parte-hartzea oso anitza da, euren bizi-ibilbideetan ere eraldatuz joan dena: mugimendu feministako kideak, emakume elkarteko kideak, adinekoen elkarteetako eta alargunen elkarteetako kideak, pentsionisten mugimenduko kideak... Gizartearekin kritiko azaltzen dira, eta parte hartzea ahalduzko modu bezala garrantzitsua dela deritzote, bai eta aisialdirako aukera kolektibo bezala ere. Motibazio altua izan dute eztabaida-taldean parte hartzeko, eta euren ahotsa kontuan izateagatik eskertuta azaldu dira (ikus taula, atal honen amaieran).

Eztabaida-taldean iraupena ordu eta erdi eta bi ordu bitartekoa izan da, horiek bideratzeko gidoiak erabili izan dira eta ahotsak grabatu egin dira, ondoren transkripzioak egiteko. Guztiak Emakumeen Etxeen baitan egin dira, COVID-19aren kontrako segurtasun-neurriak gordez.



**3. Bilerak Emakumeen Etxetako ordezkarien lantaldearekin.** Lantalde bat eratu da, proiektuan parte hartu duten EEetako ordezkariak osatua, eta hiru bilera egin dira haiekin. Bilera horien helburua hausnarketa kolektiboak egitea izan da, proiektuaren ardatzak elkarrekin adosteko eta ikerketaren nondik norakoak eta emaitzak kontrastatzeko. Teknika parte-hartzaileak erabili dira bilerak dinamizatzen (ikus taula, atal honen amaieran).

Bilerak hauexek izan dira:

- Lehena irailaren 25en egin zen Basauriko Marienea Emakumeen Etxean, eta zortzi EEetako ordezkariak egon ziren. Proiektua haiekin kontrastatu zen. Bertan eztabaidatu ziren 'adineko emakumea' kategorian, arlo horren egoera EEetan eta proiektua aurrera eramateko aukerak eta zailtasunak. Hainbat teknika erabili ziren horretarako.
- Bigarrena abenduaren 14an egin zen Arrasateko Emakume Txokoa, eta zazpi EE egon ziren ordezkaturik: Arrasate, Azpeitia, Basauri, Eibar, Ermua, Ondarroa eta Urola Garaia. Adineko emakumeekin eginiko eztabaida-taldeen ondorioak aurkeztea eta etorkizuneko lanketarako eta esku-hartzerako ardatzak zehaztea izan ziren helburuak. Horretarako, azpitaldeak egin ziren ardatz horien gaiak, metodologia eta ekintzak zehaztu ahal izateko.
- Hirugarrena urtarrilaren 19an egin zen Ermuako Lobiano Kultur Etxean, eta zazpi EE egon ziren ordezkaturik: Arrasate, Azpeitia, Basauri, Eibar, Ermua, Ondarroa eta Urola Garaia. Bertan, behin-behineko txostena baloratu zen eta behin betiko proposamena biribildu.

**EMAKUMEEN ETXEETAKO ORDEZKARIEKIN EGINDAKO BILERAK**

Data	Non	Nongo Emakumeen Etxeak	Bileraren antolaketa
2020-09-25	Marienea, Basauriko Emakumeen Etxea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrasateko Emakume Txokoa</li> <li>- Azpeitiko Emakumeen Txokoa</li> <li>- Basauriko Marienea</li> <li>- Eibarko Andretxea</li> <li>- Ermuko Emakumeen Topalekua</li> <li>- Gasteizko Sorginenea</li> <li>- Ondarroako Etxelila</li> <li>- Urola Garaiko Emakumeen Etxea</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Agurra, aurkezpena eta informazio orokorra</li> <li>2. 'Adineko emakumea' kategoria eta adina: nor datorkigu burura?</li> <li>3. Etxe bakoitzeko informazioa</li> <li>4. Zailtasunak eta aukerak aztertzeo dinamika</li> <li>5. Gaien identifikazioa</li> <li>6. Agurra</li> </ol>
2020-12-14	Emakume Txokoa, Arrasate	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrasateko Emakume Txokoa</li> <li>- Azpeitiko Emakumeen Txokoa</li> <li>- Basauriko Marienea</li> <li>- Eibarko Andretxea</li> <li>- Ermuko Emakumeen Topalekua</li> <li>- Ondarroako Etxelila</li> <li>- Urola Garaiko Emakumeen Etxea</li> </ul>	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. Agurra, aurkezpena eta orain arte egindakoaren berri ematea</li> <li>2. Bidalitako txostenen kontrastea</li> <li>3. Gai eta ardatzen lanketa azpitaldeetan</li> <li>4. Gai eta ardatzen lanketa plenarioan</li> <li>5. Agurra</li> </ol>
2021-01-19	Lobiano Kultur Etxea, Ermua	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arrasateko Emakume Txokoa</li> <li>- Azpeitiko Emakumeen Txokoa</li> <li>- Basauriko Marienea</li> <li>- Eibarko Andretxea</li> <li>- Ermuko Emakumeen Topalekua</li> <li>- Ondarroako Etxelila</li> <li>- Urola Garaiko Emakumeen Etxea</li> </ul>	Proposamenaren zirriborroaren aurkezpena eta berrikusketa eta behin-betikoa burutzea

**ADINEKO EMAKUMEEKIN EGINDAKO EZTABAIDA TALDEAK**

Udalerrria	Data	Emakume kopurua	Adin-tarteak	Parte-hartze soziopolitiko/ mugimenduak eta elkarteak
Arrasate	2020-11-21	8	62-75	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumeen Mundu Martxa</li> <li>- Euskaingintzako mugimendua</li> <li>- Nagusien elkarte</li> <li>- Udal mailako bestelako parte-hartze politikoa</li> </ul>
Azpeitia	2020-11-20	7	62-76	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Oso emakume aktiboak. Herriko talde ezberdinetan parte hartzen dute: bai mugimendu soziopolitikoetan, bai elkarte kultural eta aisialdikoetan</li> </ul>



Udalerria	Data	Emakume kopurua	Adin-tarteak	Parte-hartze soziopolitikoak/ mugimenduak eta elkarteak
<b>Basauri</b>	2020-11-06	9	62-77	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Basauriko Emakumeen Elkarte</li> <li>- Asanblada Feminista</li> <li>- Emakumeen Kontseilua</li> <li>- Alargunen Elkarte</li> <li>- Intercambio de Capacidades taldea</li> <li>- Pentsiodunen mugimendua</li> <li>- Euskalgintzako mugimendua</li> <li>- Basandere Aperribaiko elkarte feminista</li> <li>- Udal mailako bestelako parte-hartze politikoa</li> </ul>
<b>Eibar</b>	2020-10-26	6	67-88	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumearen Mahaia</li> <li>- Goiargi elkarte</li> <li>- Altzoa Alargunen elkarte</li> <li>- Pagatxa emakume elkarte</li> </ul>
<b>Ermua</b>	2020-10-27	5	65-85	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ermuko Emakumeen Asanblada</li> <li>- Berdintasun kontseilua</li> <li>- Alargunen elkarte</li> <li>- Ermua Lagunkoia</li> <li>- Tratu onen aldeko Plataforma</li> </ul>
<b>Ondarroa</b>	2020-12-01	6	65-78	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Emakumeen Kontseilua</li> <li>- Etxelilako Literatura taldea</li> <li>- Boga Boga elkarte</li> <li>- Antiguako Ama Jubilatu elkarte</li> <li>- Uxu talde feminista</li> </ul>
<b>Urola Garaia</b>	2020-11-17	2	62-68	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Pentsiodunen mugimendua</li> <li>- Mugimendu feminista</li> </ul>
<b>Vitoria-Gasteiz</b>	2020-11-06	3	71-75	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mugimendu askotan parte hartzen dute hirurek: Oneka, Emakumeok Gerraren Aurka, Ongi Etorri Errefuxiatuak...</li> </ul>

### 3. TESTUINGURU TEORIKOA

Lehenago ikusi dugunez, Emakumeen Etxetara hurbiltzen diren profil ezberdinen artean, 'adineko emakumea' kategoria anitza da, baina, zentzu batean, zehaztugabea ere bada. Gi-zartean, ordea, kategoria hori homogeneizatzeko joera antzematen da, ahazturik, adineko



pertsonen artean aniztasuna nagusi dela, gaztaroan eta helduaroan bezalaxe (Ramos, 2018: 84). Ikuspegi murriztaile horren inguruan, Anna Freixasek (1997, 2008) esaten du norbakoak beraien adinaren eta generoaren arabera homogeneizatzen direnean, ukatu egiten dela adineko pertsonen artean dagoen pluraltasuna. Aniztasuna eta pluraltasuna aitortzeak aukera ematen du adineko emakumeek bizi-esperientzia eta esperientzia profesional askotarikoak eta aberasgarriak izan dituztela adierazteko, adin guztietako emakumeentzako eredu ugari eskainiz (Freixas, 2008: 46).

Ikergaiaren konplexutasunaren aurrean, diagnostiko honen lehen helburua kategoria horri buruz hausnartzea eta gehiago sakontzea izan da, ikerketan parte hartu duten adineko emakumeekin batera, haien inguruan segurutzat jotzen diren zenbait ezaugarri kolokan jartzera iritsi arte. Lan hori hurrengo atalean jasota geldituko da.

Neurri handi batean, 'adineko emakumea' kategoriarik nortasun indibiduala eta, batez ere, kolektiboa falta zaio. Askotan, pentsatzen dute adineko emakumeak 'besteak' direla, eta nork bere burua ez du adin berekoen talde horretan sartzen (Freixas, 1991: 75). Horrek erakusten duenez, adinekoa izateko, lehenik eta behin, emakumeak horrela sentitu behar dira (Ramos, 2018: 88). Zahartzaroa, eta konkretuki emakumeen zahartzaroa, ezin da soilik adinaren arabera neurtu. Bestelako ñabardura asko ditu, eragin indibidual eta kolektiboa dakartenak (Freixas, 2009: 60). Zahartzaroa adinera murriztea eredu maskulinoarekin lotzen da. Errealitateak erakusten duenez, emakumeen kasuan, helduaroan betetzen dituzten rolen aniztasuna da zahartzaroarekiko ikuspegia eta bizipena baldintzatzen dutenak (Freixas, 2009: 62).

Orokorrean, zahartzaroa, bai gizarte mailan, bai esparru akademikoan, ezkutuan dagoen errealitatea da. Carles Feixak (1996) azpimarratu du adinaren arabera antolatzen dela gure gizartea, beste aldagai batzuekin batera. Antolaketa hori helduzentrikoa da, helduaroa bizitzako gainontzeko uneen gaintik balioesten delako, adinen arteko botere harremanak sortzen direla. Horrez gain, zahartzaroaren inguruan egindako irakurketak oso ezkorrek dira. Adinean zentratutako gizarte egituraren ondorioz, pertsonak, zaharrak izateagatik, sistematikoki estereotipatuak eta diskriminatuak izango dira. Nolabait, ez-gizaki bezala ikusiak dira, zahartzaroa ezaugarri gutxiesgarriekin lotuz: gaixotasunarekin, gaitasun fisiko eta mentalen murrizketarekin, zatarkeriarekin, menpekotasunarekin, isolamenduarekin, pobreziarekin eta depresioarekin (Freixas, 2008: 43). Zahartzaroa garai finalista moduan ulerturik, adineko pertsonen buruzko balio ezkorrek baino ez ditu sortzen (Freixas, 2018b: 3).

Emakumeen kasuan, lehenago aipatutako errealitatea okertu egiten da, adinarekin batera generoa agertzen baita faktore diskriminatzaile gisa. Adineko emakumeen errealitatea oraindik ikusezina da, eta gizarteak emakumeen zahartzaroz egindako irakurketek kutsu ezkorragoa dute oraindik. Gizonak eta emakumeak ez dira modu berean zahartzen. Are gehiago, María Teresa Bazoren aburuz (2002), zahartzaroaren esperientzia emakumeena da, emakumeak gizonak baino gehiago bizi baitira (2002: 8). Esan bezala, sexismoaren ondorioz, emakumeek, zahartzerakoan, gizonek baino egoera zaurgarriagoa bizi dute.

Adineko emakumeek pairatzen dituzten ahuleziak hainbat esparrutan antzeman daitezke (Bazo, 2002; Freixas, 2009, 2008; Ramos, 2015, 2018). Arlo sozioekonomikoari dagokionez, prekarietatea da nagusi, pobrezia ekonomikoa jasateko arrisku handia dutelarik. Errealitate hori okerragoa da bestelako faktore diskriminatzaileak interseksioan daudenean, baina, oro har, esan daiteke aurreko belaunaldietako emakumeek bizi duten prekariedade ekonomikoa familiaren beharrian ekonomikoen eta zainketen beharren arabera lan merkatutik sartu eta ateratzearen ondorio zuzena dela. Laburbilduz, adineko emakumeen ahultasun ekonomikoa haziera eta zainketa lanetan izan duten arduragatik azaltzen da.

Bestalde, zahartzaroarekin lotuta, bakardadearen fenomenoak eragin handiagoa du emakumeengan. Egoera hori nabariagoa da alargunen kasuan, bereziki helduaroan zainketa lanetan erabat murgilduta egon direnean. Emakumeei egotzitako kanon sozialek baldintzatzen dituzte adineko emakumeen gorputz eta edertasun esperientziak: gaztetasuna eta argaltasuna, alegia. Osasuna, hein handi batean, erreprodukzio gisa ulertzen da, eta, adinekoen kasuan, menopausiari oso hertsiki lotzen zaio. Azkenik, adineko emakumeengana indarkeria matxistak ere berezitasunak ditu, lehenago azalduko berariazko ezaugarriek baldintzatuta.

Kolektibo honek badu banaka nahiz talde moduan egoera horiei aurre egiteko ahalmena. Genero-sozializazio bereziak zenbait aukera dakartza adineko emakumeentzat. Adineko emakumeen agentzia beraien artean harreman sozialak sortzeko ahalmenean, bizitza sozial eta kulturalean parte hartzeko gogoan eta, orokorrean, saretzeko joeran antzeman daiteke.

Errealitatea konplexua da eta haren gaineko ezagutza, urria. Diziplina desberdinek emakumeen zahartzaroari buruz sustatutako ikerketen barruan, marko analitiko eta kontzeptual ugari antzeman dira (González eta Lube, 2020). Ikerketa horietan, emakumeen errepresentazioa mendeko edo ezkutuko subjektuarena izan da, ikuspegi androzentrikoa nagusituz (Pérez, 2003). Gizarte-zientzietan, zahartzaroari buruzko ekarpen feministak berantiarak izan ziren eta, horretaz gain, ikerketa jarraibideetan esparru marjinala okupatu izan dute harrezkero (González eta Lube 2020: 3). Hain justu, emakumeen zahartze-prozesuen aurrean dagoen ezagutza-hutsunea gainditze aldera eman beharreko pausoen artean aurkezten dugu diagnostiko eta esku-hartze kolaboratiborako lan hau.

Emakumeen zahartzaroari buruzko ezagutza kritikoa gerontologia feministari zor zaio. Bere helburua adineko emakumei egotzitako esanahien eta balioen izaera soziala eta eraikia ikusaraztea da, adineko emakumeen bizitzak baldintzatzen dituzten arau kulturalen eraikuntza agerian jarriz (Yuni eta Urbano, 2008; Freixas, 2008) eta emakumeen zahartzaroari buruzko ikuspegia, adinean eta estereotipoetan oinarritua eta gure gizartean nagusi dena, eraldatuz (García-Mina, 2002). Emakume nagusien ikusgaitasun soziala sustatu behar da, esparru publikoan duten parte-hartzea sustatuz (Freixas, 2007) parte-hartze forma anitzei eta emakumeen arteko aniztasunari erreparatuz (Ramos, 2015, 2018).

Diagnostiko honen abiapuntu teorikoa politika feministak emakumeen zahartzaroari buruz egindako ekarpenean oinarritzen da. Diagnostikoaren helburua zahartzaroaren inguruko

esanahiak, arauak eta balio kulturalak ulertzea da (Fericgla, 1992; Neugarten, 1999) eta, aldi berean, generoaren bidez ezartzen diren ezberdintasun sozialak ikusaraztea (De Beauvoir, 1983; Del Valle et al., 2002; Maquieira, 2002; Prieto et al., 2009). Hori lortzeko, Freixasen (2007, 2018a) aburuz, ezinbestekoa da adineko emakumeen bizipenak jasotzea eta ahots horien balioa eta garrantzia aitortzea. Horixe da, hain zuzen ere, diagnostikoaren diseinu metodologikoaren bidez sustatu nahi izan dena.

Sarreran esan bezala, Euskal Herri mailan, adineko emakumeek askotariko esperientzia asoziatiboetan hartzen dute parte. Hartara, asoziazionismoa giltzarria da emakumeen arteko laguntza-sareak sortzeko (Del Valle, 2009). Teresa del Valleren (1997) ustez, elkarte horietako batzuk esparru pribatuaren eta publikoaren arteko zubi-lana egiten duten espazioak dira, genero-ezberdintasunak eraldatzeko mekanismoak berraktibatzen dituztenak (Maquieira, 1995, in Ramos, 2015: 395). Ildo horri jarraiki, adineko emakumeen esperientziei eta parte-hartzei arreta berezia jartzen dieten proiektuen beharra azpimarratzen da, eza gutzen hartu-eman generazionala (Freixas, 2013) eta adin ezberdinetako emakumeen ahal-duntze-prozesuak sustatuz (Adimen Investigación, 2012).

## **4. AURREKARIAK: ADINEKO EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO JARDUERAK EMAKUMEEN ETXEETAN ETA UDALERRI MAILAN**

Sarreran esan bezala, adineko emakumeen inguruan erantzun gabeko galdera asko identifikatu dira feminismoaren baitan. Hutsune hori egon arren, proiektu hau ez da ezerezetik abiatu, eta proposamena diseinatzerakoan kontuan izan ditugu Emakumeen Etxeetan gaiaren inguruan metatutako ezagutza eta praktika. Orain arte, adineko emakumeei hainbat jarduera eta ekintza zuzendu izan zaizkie Emakumeen Etxeetan, haientzat berriaz edo hein handi batean adineko emakumeak izan dituztenak parte-hartzaile. Helburu horrekin, ikerketan identifikatutako hainbat gairen inguruan orain arte antolatutako jardueren erregistroa egiteko taula bat betetzea eskatu genien Emakumeen Etxeetako teknikariei, eta, bertan jasotako informazioa sistematizatu ondoren, hurrengo informazioa eskaintzen dugu.



## ADINEKO EMAKUMEEI PROPIO ZUZENDUTAKO JARDUERAK

Ekintza motak	Gaiak	Xehetasunak
<b>Ikastaroak Emakumeen Etxeetan</b>	Zahartze prozesua	<i>Zaharrahalduntze feminista</i> (Ondarroa) <i>Envejecer bonito/Zahartze ederra</i> (Arrasate, Basauri, Donostia, Ondarroa, Ermua, Urola Garaia) Mintegi egonkorra (Donostia) <i>Adinkeria</i> (Ermua) <i>Feminismoa eta zahartzea</i> . Mónica Ramosen hitzaldia (Gasteiz)
	Sexualitatea	Tailerrak (Azpeitia, Basauri)
	Osasuna	Memoria tailerra (Ermua, gizarte zerbitzuekin batera) Menopausia tailerrak (Arrasate, Ermua, Hernani, Ondarroa)
	Harremanak	<i>Harremanak nola hobetu, gatazkak kudeatuz</i> (Ondarroa: Boga Boga)
	Adineko emakumeen identitatea eta eredu berriak	Anna Freixasen <i>Tan frescas</i> liburuaren aurkezpena (Basauri, Ermua)
<b>Arte erakusketak EEetan</b>	Adineko emakumeak, artista	<i>Biba zuek</i> erakusketa (Basauri)
<b>EEetatik kanpo antolaturiko jarduerak</b>	Sexualitatea	Sexualitatea eta joko erotikoak (zahar etxeekin lankidetzan, Arrasate)
	Feminismoaren ikusgaitasuna eta emakumeen protagonismoa	Bisita gidatuak eta solasaldiak EEetan (Zahar etxeekin lankidetzan, Basauri) M8 ospakizuna (jubilatuen elkarteekin eta egoitzekin lankidetzan, Ondarroa) Emakumeentzako jarduerak (jubilatuen elkarteekin eta egoitzekin, Hernani, Gasteiz)
<b>Bestelakoak</b>	2019ko Azaroaren 25eko kanpaina	<i>Ze u gabe, neu naiz</i> (Basauri)
	Adineko emakumeentzako berariazko jarduerak antolatzeko diru-laguntzak sustatu (aurrekontuak)	Adineko emakumeen jarduerak antolatzeko diru-laguntzak (Basauri)
	Adineko emakumeen egoeraren jarraipena COVID garaian	Telefono bidezko jarraipena (Basauri, Ermua)
	Elkartegintza-emakumeen elkarteek antolatutako jarduerak eta formazioak	Boga Boga emakume elkarteak Ondarroako Etxelilan modu finkoan eskainiak eta antolatutakoak
	Adineko emakumeen ikuspegia eta interseksionalitatea txertatu	III. Berdintasun Planaren garapenean, adineko emakumeen parte-hartzea garrantzitsua izaten ari da, interseksionalitatea landuz (Urola Garaia)
	Prekarietateari aurre egiteko Gizarte Zerbitzuekiko elkarlana	Energia ordaintzeko eta bestelako gaietarako dauden diru-laguntzen informazio bilketa, adineko emakumeei helarazteko (Urola Garaia)

## JARDUERA MISTOAK (ADIN DESBERDINETAKOENTZAT), NON ADINEKO EMAKUMEEK PARTE HARTU OHI DUTEN

Ekintza motak	Gaiak	Xehetasunak
Antolakuntza	Feminismoa	Asanblada eta solasaldi feministak (Basauri, Donostia, Eibar, Ermua, Ondarroa)
	Zaintza	Zaintzaileen taldeak (Urola Garaia)
	Zahartzea	<i>Envejecer bonito</i> talde finkoa (Urola Garaia)
Ikastaroak	Osasuna eta ongizatea	Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa (Arrasate, Basauri, Ermua, Ondarroa)
		<i>Autoestimua lantzen</i> (Arrasate)
		<i>Doluak lantzen</i> (Arrasate)
	Indarkeria matxista	<i>Autodefentsa feminista</i> (Basauri, Ermua, Ondarroa)
	Sare eta teknologia berriak	<i>Sare eta teknologia berriak</i> (Arrasate, Ondarroa)
		<i>Bilerak eta ikastaroak online egiten ikasi nahi dut, Zure mobila ezagutzen, Oinarrizko interneta</i> (Eibar)
Bestelakoak	<i>Mugikorra erabiltzeko tailerra, Internet eta sare soziala, Empoderamiento digital</i> (Ermua)	
	<i>Ama/amonengandiko istorioak konpartitzeko ipuin kontaketa</i> (Arrasate)	
		<i>Andreen ibilbideak</i> (Eibar)

Emakumeen Etxeetan ez ezik, adineko emakumeek bestelako jardueretan ere parte hartzen dute eta sustatzen dituzte udalerrri mailan. Honako hauek jaso ditugu:

## ADINEKO EMAKUMEEK INPLIKATUTA DAUDEN BESTELAKO JARDUERAK

Gaiak	Xehetasunak
Zaintzaren arloa	Zer: informazioa eta aholkularitza, diagnostikoak, topaguneak, ikastaroak, hitzaldiak... Nori zuzendua: zaintzaile ez ordainduak eta ordainduak (etxeke langileak, etxez-etxeke langileak...) (Basauri, Donostia, Gasteiz, Urola Garaia)
Erretiroa, pentsiodunak eta egoera ekonomikoa	ONEKA taldeak daude hainbat herritan: Azpeitia, Basauri, Gasteiz BAIGERA Azpeitiko Jubilatuen Elkartek sustatuta egin izan diren pobrezia-aren inguruko azterketetan genero ikuspegia txertatzeko ahaleginak
Hirigintza eta parte-hartze soziala	Eusko Jaurlaritzaren <i>Hiri lagunkoia</i> programa, non emakume askok parte hartzen duten (Basauri, Donostia, Ermua, Ondarroa)
Zahartze prozesua	<i>Zahartze Aktiboa programa</i> eta <i>Belaunaldiarteko Programa</i> , adineko pertsonen zuzendutako programak non emakumeen parte-hartzea oso altua den (Gasteiz)
Memoria eta genealogia feminista eta emakumeena	Diagnostikoak, hitzaldiak, dokumentalak, aitortza-ekitaldiak, kaleen izenak... (udalerrri gehienetan).

## 5. 'ADINEKO EMAKUMEA' KATEGORIA: ZAHARTZEA ZER DEN ETA NOLA IZENDATU

Elkarrizketatu ditugun adineko emakumeek ezin hobeto identifikatu dituzte haien egunerokotasunean, gure gizartean, zahartzaroaren inguruan nabarmentzen diren keriak (adinke-ria, paternalismoa, infantilizazioa<sup>6</sup>, bizitzen gaineko kontrola...), eskubideen urraketa eta agentzia-aitorpen falta, eta baita horrek dituen ondorio ezkor guztiak ere. Bizi garen eredu politiko-ekonomikoan, adinekoa izatea produktiboa ez izatearekin parekatzen da, eta emakumeak oso kontziente dira horrek dakartzan balioez eta ikusgaitasun sozialaren eta eskubideen galeraz. Gainera, gaizki tratatuak ere sentitzen direla adierazten dute, bai harreman hurbil eta urrunetan, bai eta erakundeen eta administrazioaren aldetik ere. Egoera hori areagotu egiten da emakume batek bere adineko norbaitentzat espero ez den irudia edota portaera erakusten duenean.

Egoera horren aurrean, eta lehenago aipatu bezala, mota askotako erresistentziak abiarazten dituzte emakumeek, ahozko protestetatik desobedientzia txiki edo ez horren txikietara. Hori bai, erresistentzia horiek normalean banako mailan gauzatzen dira; askoz urriagoak dira kolektiboki antolatzen dituztenak. Gaur egungo salbuespen agerikoenak emakume pentsiodunen<sup>7</sup> kanpainak izango lirateke, guk lan egin dugun herri gehienetan presente daudenak, non emakume nagusiek propio bizi ohi dituzten azpiratze soziala eta ekonomikoa agerian uzten duten.

Dena den, ez teknikarien ez elkarrizketaturiko emakumeen iruditerian ez dago guztiz argi nola definitu edo zer den adineko emakumea izatea, ezta zahartzaroa noiz hasten den ere, eta orain aipatuko ditugun askotariko aspektuak mahairatzen dira horretaz gogoeta egite-rakoan. Izan ere, 'adinekoa-produktiboa ez dena' bitasun hori kritikatu arren, erretiro-adina (65 urte da erabili ohi den zifra) da zahartzaroaren hasiera seinatzeko erabili ohi den osagai nagusienetakoa, nahiz eta azpimarratu emakume bat ez dela inoiz jubilatzen, zaintzen jarraitzen baitu, edota elkarrizketaturiko batzuek enplegurik izan ez. Era berean, zahartzeaz pentsatzen jarrita, oso presente dituzte eraldaketa fisikoak: moteltze orokorra, nekea, energia-galera edota menopausiarekin loturiko osagaiak izan dira gehien aipatu diren aspektuak. Horrekin batera, gainbehera horiek onartzeko prozesuaz mintzo dira, zeina ez den beti erraza izaten.

---

6 'Infantilizazio' kontzeptua da elkarrizketatuko emakumeek eta gizarteak, oro har, erabiltzen duten hitza, tratu txar mota bat salatzeke. Baina kontzeptu horren errora joanez, nagusiak haur bezala tratatzen direla esatearen atzean dagoen arriskua da trataera hori haurrei ematea onargarria dela pentsatzea. Horrek hausnartzeko aukera ematen digu gure gizartean haurrei ematen zaien trataeraren inguruan. Harreman desegoki hori salatzeke, hobe izango litzateke bestelako kontzepturen bat erabiltzea, edo adineko pertsonen bizitzen gaineko kontrolaz hitz egitea, besterik ez.

7 2018an jaio zen Oneka, Euskal Herriko Emakume Pentsiodunen Plataforma, eta hainbat herritan funtzionatzen dute plataforma honetako taldeek.

Atera dugun beste ondorio nagusi bat izan da gurekin solastatu diren emakumeen artean ez dagoela adineko edo zahar identitate sozial edo politikorik, salbuespenak salbuespen, eta gazteen artean gertatu ohi denaren kontra. Bereizki aintzat hartzeko moduko elementua iruditatu zaigu hori, zeren identitatea baita edozein gogoeta edo jarduera politikorako baldintza behinena. Hau da, eraldaketa fisikoak nabaritu arren, ez dute beraien burua ‘adinekotzat’ edo ‘zahartzat’ hartzen, edozein dela duten adina. Horrekin loturik, bereizketa argi bat egin dute beraien eta sozialki eta politikoki aktibo ez dauden ‘bestelako’ adineko emakumeen artean; horiexek dira beraiantzat benetako adinekoak. Beraz, norberaren identitate-falta, besteen jarduera politikoarekin eta haiekiko aurreiritziekin lotu ohi da, ‘gu/besteak’ bitasun bat sortuz, zeinaren arabera, parte-hartze soziala ez dutenak edo zaharragoak direnak diren ‘adinekoak’.

‘Adineko emakumea’ terminoa lehenesten ari gara lan honetan. Baina interesgarria iruditatu zaigu izendapen horren eta bestelako aukeren inguruan sakontzea, baita emakumeek berek horren inguruan uste dutena jasotzea ere. Horrela, zahartzen diren emakumeak (pertsonak) deitzeko erabiliak izan ohi diren terminoak jaso eta aztertu ditugu, hala nola, ‘adinekoak’, ‘nagusiak’, ‘helduak’ edo ‘zaharrak’, batetik, edo beste batzuk: ‘amama/amona/amandre’, ‘atsoa’...

Emakumeei horren inguruan galdetu diegunean, gehienak ‘adineko’ eta ‘nagusi’ terminoen alde agertu dira, baina ñabardurak ere sortu dira hitz horien artean. Adibidez, ‘adinekoak’ edo ‘nagusiak’, euskaraz, eta ‘mayores’ edo ‘señoras’, gaztelaniaz, errespetuzko tratua dela pentsatzen dute. Baina bestelako batzuk ere aipatu dituzte: ‘mayores activas’, ‘marchosas’... Beste aldetik, ‘amona/amama/amandre’ terminoak<sup>8</sup> ere agertu dira, maitekorrak direla aipatuz, nahiz eta elkarrizketatu batzuek azpimarratu izen horiek dakartzaten konnotazio ezkorrrak, ahaidetasun-harremanetatik kanpo erabiliak izan ohi baitira, emakumeen nortasuna harremanezkotasunetik eraikiz eta subjektutasuna ukatuz<sup>9</sup>.

Terminoekin amaitzeko, ‘zahar’ hitza gogorregia iruditzen zaie gehienei, erabat ezkorra, haien iritzia “zaharrak gauzak dira, ez pertsonak” esamoldearekin laburtuz. Halere, gutxi batzuek aldarrikatu egiten dute termino hori, aktibismorako eta borroka politikorako izan daitekeen ikur-dimentsioa nabarmenduz, eta feminismoak eta beste mugimendu batzuek kanpotik egiten zaizkien izendapenekin (*queer*, esate baterako) jarraitu duten ildoak edo joera gogoraraziz<sup>10</sup>.

8 Arrasaten eta Urolan ohikoa den ‘amandrea’, errespetuzko izendapena izango litzateke. Bestela, ‘atsoa’, agertzen denean, despektiboa izaten dela enfatizatu dute, nahiz eta Azpeitia bezalako herrietan normalizatuago egon zaharrak ez diren emakumeen artean ere.

9 Irati Mogollón Garciak eta Ana Fernández Cuberok ‘zahartze aktiboak’ delakoaz hitz egiten dute haien *Arquitecturas del cuidado. Viviendas colaborativas para personas mayores. Un acercamiento al contexto vasco y las realidades europeas* (2016) ikerlanean.

10 Ikus Mari Luz Estebanek idatzitako *Andrezaharraren manifestua* (Pamiela, 2019) poema-liburua, non ‘zahar’ (eta ‘atso’, ‘atsotasun’) hitza erabiltzearen aldeko gogoeta eta proposamena egiten duen. Idurre Eskisabel Larrañagak ere haren *Goseak janak* (Susa, 2018) poemarioan ‘atso’ hitza erabili du.

## 6. ADINEKO EMAKUMEAK COVID-19 GARAIAN

Azken hilabeteotan COVID-19ak sortu duen egoera berriak askotariko ondorioak ekarri ditu gizarte osoan, baina birusa eteteko hartutako neurri zorrotzek eragin handiagoa (izan) dute adineko pertsonen artean, 'arriskuko biztanleria' kategoria barruan kokatuta gelditu dira eta. Gobernuak pandemiaren aurrean jokatzeko arau eta estrategia zehatzak ezarri dituzte. Hori baino lehenago, gizartearen gaineko klasifikazioa egin dute, eta talde zaurkorrak definitu dituzte. Horien artean, adina izan da erabilitako irizpideetariko bat. Lehenago aipatu den bezala, adineko emakumeak adinagatik soilik identifikatzea ez dator bat gizatalde horren izaerarekin. Horregatik, geroago ikusiko dugun moduan, eta lan honetan parte hartu duten emakumeek adierazi duten bezala, gobernuak eta gizarteak 'zahar' bihurtu dituztela sentitzen dute, adineko pertsonen heriotza soziala normalizatzeraino.

Pandemia kudeatzeko neurrien artean, distantziamendu soziala ezarri da. Horrek goitik behera eraldatu du adineko emakumeen eta, bereziki, mugimendu feministan militatzen dutenen egunerokotasuna. Kolektibo honentzat oso garrantzitsua da bai harreman sozialak izatea, bai beste emakumeekin elkartzea, baina egoera berri honetan oso zaila bihurtu da hori. Kalera irteteko edo besteekin biltzeko beldurra antzematen da emakume askorengan, eta, hainbatentzat ondorio latzak ekarri dituen arren, erresistentziak badirela aipatzen da ere. Erresistentzia horiek estrategia indibidualetan (adibidez, idaztea) nahiz kolektiboetan (adibidez, ahal denean besteekin elkartzea) daude oinarrituta. Zentzu horretan, batzuek proposatu diegun eztabaida-taldeetan parte hartzea bera erresistentzia praktika bezala bizi izan dute, eta oso eskertuta agertu dira.

Konfinamendu garaiarekin hasi eta 'normaltasun berrian' mantendu den joera giza harremanak gero eta birtualagoak bilakatzea izan da. Adineko emakumeek komunikazio mota horren zioz bizi duten arrakala digitala agerian geratu da. Kezkaz bizi duten errealitatea da. Garai honetan sortu diren gaizkiegonei eta ondorioei aurre egiteko aukerak eskaini arren, ez dira batere eroso sentitzen parte hartzeko forma berri horrekin, haientzat elkartzea baita parte hartzeko berezko modua.

Pandemiaren kudeaketa politikoarekin oso kritikoak izan dira, eta gizarteari eskainitako informazio urria da gehien gaitzesten dutena. Horrez gain, gure ustez, egoeraren larritasunari aurre egiteko nolabaiteko asistentzialismoa nagusitu dela azpimarratu beharko genuke, Emakumeen Etxetan ere bai. Dena den, konfinamenduan zentro horietatik egin zen telefonozko arreta berezitua oso ondo baloratua izan da. Baina eztabaida-taldeetan aipatu den bezala, bizi dugun egoeratik ateratzeko irtenbide alternatiboen beharra ikusten dute. Helburu hori lortze aldera, lagungarria izango litzateke emakumeek beste une batzuetan bizi izandako antzeko egoeren memoria berreskuratzea, adibidez, frankismo garaiko etxeratze aginduak gertatu zirenekoa.



Diagnostikoan parte hartu duten emakumeak ere, Amador Fernández-Savaterrek (2020) gizarite osoari buruz aipatu duen bezala, "arraro daude". Baina adineko emakumeak testuinguru berri honen aurrean oraindik arrarago daude, ikusi baitute beraien adina arrisku eragile bat bihurtu dela besteen begietara.

## 7. JARDUTE ARDATZAK ETA GAIAK

Bai eztabaida-taldeetan parte hartu duten emakumeei, bai Emakumeen Etxetako ordezkariari galdetu diegunean zeintzuk izango lirakeen haien ustez adineko emakumeekin lan egiteko premiak, hainbat gai aipatu dira.

Gai horiek 9 jardute-ardatzetan multzokatu ditugu: (1) adinkeria eta eskubideen urraketa zahartzaroan; (2) prekaritatea eta pobrezia; (3) zaintza-zerbitzuak eta lanak; (4) indarkeria matxista eta bestelako indarkeriak; (5) elkarbizitza, elkarren arteko harremanak eta bakardadea; (6) osasuna, ongizatea eta sexualitatea; (7) harremanak era digitalean eta arrakala digitala; (8) plazera eta aisialdia; (9) adineko emakumeen aitortza, memoria eta genealogia feminista.

### 7.1. Adinkeria eta eskubideen urraketa zahartzaroan

Elkarrizketatutako emakumeak adinekoak izateagatik diskriminatuta sentitu dira inoiz (osasungintzako profesionalen eskutik, zaintzaileen eskutik, kaleko jendearen eskutik...). Oso ohikoa da kolektibo horri hitz egiteko, tonu bereziz zuzentzea. Haurrei hitz egiten zaien doinuarekin parekatzen dute, eta horregatik infantilizatuta sentitu izan dira. Berezi haseurretzen dituen gaia da.

Freixasek (2008) "adinkeria" deitu dio fenomeno horri, Robert Butlerren (1969) kontzeptuan oinarrituz. Zaharrak izateagatik gauzatutako estereotipo sistematikoa eta pertsona horien kontrako diskriminazioa da adinkeria (Freixas, 2008). Autore horrentzat, zahartzarora ezauzgarri ezkorrekin lotzen da gure gizartean: gaixotasunak, gaitasunen urritasunak, itsustasuna, dependentzia, bakardadea, pobrezia... Adineko emakumeen kasuan, iruditeria horrek indar handiagoa du. Estereotipoa zabaldua dagoen heinean, lehenago esan bezala, elkarrizketaturiko emakumeak eurak ere adinkeriaren estereotipoetan erortzen dira noizean behin, adineko emakumeak gaixorik, mugikortasun ezaz eta kartetan jolasten irudikatuz. Hor erakusten dute, besteak beste, zahartzarora eta gaixotasuna uztartzeko joera (Freixas, 2008).

Ikuspegi ezkor horiek saihesteko, eufemismoak erabiltzen dira sarritan, 'adineko emakumeak' edo 'emakume nagusiak', bestelako kontzeptu batzuen aurretik ('zaharra', 'atsoa'...), baina ho-

rrek, Freixasen (2008) ustez, ez du zahartzaroaren estigma zalantzan jartzen. Arestian aipatu den bezala, elkarrizketatutako emakumeek ere horrelako izendapenak nahiago dituzte.

Aurrekarien atalean ikusi bezala, adinkeriari aurre egiteko urratsak ematen hasi dira EE batzuetan, adibidez, zenbait ikastaro antolatuz (*Zahartze ederra*<sup>11</sup>/*Envejecer bonito, Zaharralduntze feminista*<sup>12</sup>...). Halaber, jarduera edo ekimen horietatik haratago joateko beharra ere ikusten dugu, alegia, esku-hartzerako lerro bat diseinatzekoa, ahalduntze kolektiboa eta parte-hartze soziala uztartze aldera.

## 7.2. Prekarietatea eta pobrezia

Adinak eta generoak sustatutako diskriminazio egoeren ondorioz, adineko emakumeek pairatzen duten zaurkortasun egoeren barruan, prekarietate ekonomikoa eta pobrezia dira askotan nabarmendu direnak. Errealitate horren adierazle aipagarriena pobrezia energetikoa da. Mónica Ramosen (2018) aburuz, adina, sexua eta elkarbizitza unitateak dira pobrezia-arriskuan gehien eragiten duten hiru aldagaiak. Hartara, adinekoa eta emakumea izateak eta pertsona bakarreko etxebizitzan bizitzeak pobrezia-aren atalasean egoteko arriskua areagotzen du. Oro har, adineko emakumeen egoera ekonomikoa gehien baldintzatzen duen aldagaia egoera zibila da: alargun-pentsioa soilik jasotzen duten emakume alargunena da kolektiborik zaurkorrena (2018: 93).

Diagnostiko honetan parte hartu duten emakumeek ere azpimarratu dute prekarietate mota hori gehien pairatzen dutenak bakarrik bizi diren emakume zaharrenak direla, alargunak, alegia. Gai horretaz mintzatzerakoan, bestelakotasuna eta distantziamendua antzeman izan da emakumeengan. Ez da jaso lehen pertsonan egoera onartzen zuen testigantzarik, eta egoera hori besteren aurrean erakusteko mugak edo erresistentziak aipatu dira, komunitate txikien kasuetan, batez ere. Kasu horietan, pairatutako zaurkortasunaren adierazlea gor-

11 Aztertutako ahalduntze-eskola gehienetan adineko emakumei zuzendu ohi zaien ikastaroa da (Itziar Gandíaren eta Inma Merinoren gidaritzapean), eta emakume bakoitzak bere zahartzaroa edertasunez eraikitzeke gida sortzea du helburu, prozesu horietan norberaren ezagutza eta norberaren zaintza bitartekoak direlarik. Esate baterako, Arrasateko Jabetze Eskolako txosten batean horrela aurkezten da ikastaroa: “60 urtera iritsi gara, gertu dugu erretiroa, hemen ditugu ilobak eta behartu egiten gaituzte, edo geure burua behartzen dugu? Buruz buru geratu gara gure bikotearekin, edo galdu egin dugu bidean... Zenbat aldaketa! Eta horiekin bizi naizen bitartean ikusten dut zelan telebistak dioskun eder jarraitu behar dugula eta bizitzaren gauza interesgarriak gazteentzat baino ez direla. Lagundu! Zelan zahartu beste modu baten? Zelan lortu gure bizi indarra, gure esperientzia, gure borroka galdu ez daitezen eta gure neska gazteak horiek baliatu ditzaten...? Prozesu horren dimentsio guztiak jorrazteko espazioa dugu hau (gizartean, ekonomian, kulturen, psikologian, harremanetan, gorputzean...); prozesu hori da normala eta naturala, emakumei lagunduko diguna galerei eta nahigabeei aurre egiteko bidea aurkitzen eta, era berean, bizitzan ditugun aukerak eta gauza onak aurkitzen”. Badira tokiak non ikastaro horren ondorioz adineko emakumeen talde iraunkorrak sortu diren, Azpeitian kasu.

12 Ikastaro hau Bizitzaren Fundazioak egin du Ondarroako Etxelilan, bai eta Donostian eta Ermuan ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Emakunderen finantzazioarekin. Bere helburuak dira ahalduntzea adineko emakumeen artean garatzea eta horien artean sareak sortzea. Horrela adierazten dute ikastaroaren txostenean: “Helburu horiek honela zehaztuko ditugu: adinkeriaren diskriminazio-fenomenoa ezagutzea, gure inguruan egunerokoan gertatzen diren ‘adinkeriako’ jokaerez jabetzea (mikroadinkeriak), adinkeria eragiten duten faktore gakoak aztertzea eta, batez ere, pertsonaetik kolektibo eta sozialera doan ahalduntze-ibilbidea marraztea eta erraztea, ingurune adinkeriaren kontrako emakumeen sarea osatzea eta gure komunitateetan diskriminazio bikoitzari erreparatu eta aurre egingo dion agente aktibo izatea, adinkeria sexistaren erronkaren aurrean irtenbideak proposatu eta ekarri”. Nahiz eta ikastaroa aurrera eraman modu arrakastatsuan, ez zen sortu parte-hartzaileen arteko sarrerik.

putza eta, konkretuki, itxura fisikoa ere badela esaten denean, besteen aurrean hori bereziki zaintzearen garrantzia aipatzen da, prekarietatea ezkutatzeko helburuarekin. Hala ere, joera horrek aurrerago aipatuko den elkarrenganako laguntza eskaintzeko eta bilatzeko grinaren kontrakoa da. Orokorrean, konfiantzazko espazioetan, adineko emakumeek ez dute mugarik jartzen euren bizipenak eta mugak beste emakumeekin partekatzen.

Eztabaida-taldeetan parte hartu duten emakume gehienek lan ordaindua izan dute heldua-roan, eta ezinbesteko baldintza da hori zahartzaroan haien egoera ekonomikoa hain latza ez izateko. Prekarietatea eta pobrezia pairatzeko arrisku handiagoa antzeman izan da heldutasunean lan ordaindurik izan ez duten adineko emakumeen artean edo arautu gabeko lan merkatuan aritu direnen artean. Hori horrela da, adineko emakumeen prekarietate ekonomikoaren oinarrian genero-sistema dagoelako, eta, konkretuki, horren ondorioz, emakumeei egozten zaielako zaintza-lanen ardura. Egungo adineko emakume askok, batez ere zaharrenek, ezkondu ostean erabateko arreta eskaini zioten familiari, eta horrekin batera pobretze progresiboa pairatu dute (Freixas, 2008: 48). Adimen Investigación ikertaldeak 2012. urtean adineko emakumeen ahalduntzeari buruz argitaraturiko txostenean ere aipatzen den bezala, emakume horien ahalduntze ekonomikoa maila baxua haien jardunaren ibilbide nagusia etxean eta familia barruan ematearen ondorio da (55. orr.). Aldiz, pobrezia-arriskua murriztu egiten da klase soziala edo eta hezkuntza-maila altuagoa denean. Azken kasu horretan, hezkuntza-maila altuagoa izan duten emakumeek etxetik kanpo egin dute lan (Ramos, 2018). Hartara, besteekin konparatuz, haien egoera ekonomikoa hobea da zahartzarora iristerakoan.

Adineko emakumeen prekarietate ekonomikoaz hitz egiten denean, aldi berean, egoera horri aurre egiteko aurrera daramatzaten askotariko estrategiak azaleratzea interesgarria da. Herminia González eta Menara Lubek (2020) aipatzen duten bezala, zaurkortasunaren aurrean, adineko emakumeek beraien ongizatea bermatzeko laguntza sareak eraikitzen dituztenean, ahalegin handia egiten dute, eta, hartara, dituzten zailtasunak arindu egiten dira (2020: 6). Emakumeen agentzia funtsezkoa da prekarietateak beraien bizitzetan dituen berehalako ondorioak arintzeko. Baina eskubide hori bermatzea ezin da soilik estrategia horien esku utzi. Horregatik, adineko emakumeentzako gutxieneko diru-sarreraren alde mintzatu dira ahobatez. Horixe adierazten du pentsio duinen aldeko aldarrikapenetan emakumeen parte-hartze handiak, eztabaida-talde guztietan adierazi den bezala.

### 7.3. Zaintza-lanak eta zerbitzu publikoak

Emakumei galdetu zaienean gaur egun adineko populazioak dituen premia nagusiak zeintzuk diren, agertu den lehenetariko gaia zaintzarekin loturiko beharrena da<sup>13</sup>. Izan ere,

13 Espainiako estatuan zaintzaren arloan ikerketak egiten hasi ziren autoreen artean, bi aurrekari esanguratsu aipatu behar ditugu: batetik, Colectivo IOE delakoa, 1995. urtean zaintzaz eta zahartzaroaz argitaraturiko *Cuidados en la vejez. El apoyo informal* lanaren egileak; eta, bestetik, María Ángeles Durán Heras soziologoa. Autore horrek zaintzaren inguruko *Desigualdades sociales y enfermedad* gogoeta plazaratu zuen 1983an; 2002ko *Los costes invisibles de la enfermedad* liburuan, zaintza-lanen kostua zenbatesteari ekin zion; eta 2018ko *La riqueza invisible del cuidado* liburuan, haren pentsamendua biribildu zuen, arlo horri dagokionez.

elkarrizketatuek garrantzi handia ematen diote gai horri. Berehala, zahar etxeetako egoera kezkarriari erreparatu diote, eta baita haien herrietan eta, oro har, dagoen zaintza-zerbitzu publiko faltari ere, etxez etxeko zerbitzu urriari, adibidez.

Iritzi horien iturrian, COVID-19rekin loturiko informazioak eragin zuzena izan du. Emakumeak kezkatuak eta haserre daude komunikabideek behin eta berriro helarazten diguten zahar etxeetako egoeraz, ikusten baitute agintariak ez direla arazo larri horren kargu egiten eta neurri partzialak ezartzen ari direla. Baina, osasun-egoeraz edota langileen lan-baldintza ezkorrez haratago, zentro horien eredu nagusiaz ere kexatu dira, egoiliarren gutxieneko askatasunaren kontra baitoa, haien ustez, eta, beraz, zaharrei gure gizartean ukatzen zaizkien eskubideen aurka. Horrela, garrantzi handia eman diote, esate baterako, hainbat zahar etxetan dagoen egunerokotasunaren antolaketa zurrinari edota egoiliarrei ezartzen zaien diziplinari (ordutegiak eta arauak); sexualitatea horren adibidea izan liteke, bikoterik ez dutenentzat sexu-harremanak mantentzeko mugak zorrotzak izaten baitira.

Beste arlo batean, zenbait emakumek azpimarratu dute beraien adinean ere, besteak (bikotekideak, bilobak edo beste senide batzuk) zaintzera derrigortuta jarraitzen dutela. Constanza Tobíoek nazioarteko mailako ikuspegi orokorra eman du, eta hauxe azpimarratu du:

*“Gizonak zahartzen direnean, emakumeek zaintzen dituzte; izan ere, emakumeak gazteagoak dira, eta, gainera, urte gehiago bizi izaten dira. Emakumeak zahartzen direnean, bakarrik egon ohi dira, eta urte luzez bizi izatera heltzen dira. Sarriagotan, alabekin edo semeekin joaten dira bizitzera, nahiz eta gero eta gutxiago gertatzen den, eta gero eta beranduago” (2008: 33).*

Eta nabarmendu du adinekoak zaintza-lanen hartzaileak direla, baina zaintzaren ardura ere badutela. Izan ere, ume txikiak dituzten bikote gazteen baliabideen artean amonak eta aitona-amonak daude, nahiz eta laguntza horren baldintzatzaile nagusiak bizilekuaren hurbiltasuna eta maila sozio-ekonomikoa izan. Guk elkarrizketatukoek jarrera anibalentea dute errealitate horrekiko: belaunaldiarteko elkartasun gisa ulertzen dute, baina baita emakumeen zapalkuntzaren seinaleztat ere.

Nola edo hala, nabarmendu behar da emakumeek haien arteko adiskide-, auzokide- eta komunitate-harreman iraunkorrak sortzen ere badakitela, lagunen eta ezagunen artean egunerokotasunean ehuntzen diren zaintza-sareen bidez. COVID-19 garaian, herri askotan gazteen ekimenez abian jarri diren sareak gehitu behar zaizkio joera horri, belaunaldiartekotasun ariketa ederra gauzatuz.

Era berean, zenbait EEtan (Donostiakoan, esate baterako) badituzte zaintzaileen babeserako berariazko gune edo topaguneak, eta, espazio horietara hurbiltzen diren pertsonen artean, adineko emakumeak dira nagusi.

Edozein kasutan, lan honetan parte hartu duten emakumeek zaintza arloari buruz egiten duten irakurketa kritikoa zerikusi zuzena dauka, gure ustez, beste faktore batek: feminismoak azken hamarkadotan zaintza-lanei eskaini dien arretak, Martxoaren 8ko greba orokorren testuinguruan, esate baterako. Hau da, emakume horiek, batetik, lehen pertsona bizi dute

zaintzaren krisia, eta, bestetik, badute dagoeneko zaintzaren inguruko genero kultura orokor bat, eta bi begiraleku horietatik aztertzen dute haien inguruan gertatzen ari dena.

#### 7.4. Indarkeria matxista eta bestelako indarkeriak

Nahiz eta, datuei jarraiki, indarkeria matxista adin guztietako emakumeek pairatu, Paola Damonti, Rut Iturbide eta Patricia Amigotek (2020) egindako ikerketaren arabera, indarkeriaren kontrako gizarte-baliabideetara iristen diren emakumeen gehiengoa 50 urtetik beherakoa da. Oro har, gutxi ikertu da adineko emakumeen kontrako indarkeriaz: ikusgaitasun gutxi izan du, bai ikerkuntzan, bai politikaren esparruan. Deigarria egin zaigu elkarrizketatutako emakumeak ohartzen direla indarkeria matxista pairatu duen jende gazteagoa ezagutzen dutela, baina adineko emakumerik ez dutela ezagutzen. Ikusgaitasun urri hori bizilagunen artean ere gertatzen da.

Aipatutako autoreen esanetan, indarkeria mota horretan sexismoa eta adinkeria gurutzatzen dira, eta batzuetan pertsona nagusien kontrako indarkeria eta indarkeria matxista elkartzeko arriskua dago. Seme-alabek ere indarkeria egoerak eragin ahal dituztela dakusate elkarrizketatutako emakumeek; adibidez, seme-alabek guraso nagusiak kontrolatzeko joera nabaritzen dute.

Ikerketa horren arabera, adineko emakumeek pairatzen duten indarkeriak berezitasunak ditu. Batetik, adineko emakumeek dituzten ezaugarriekin lotuta egon daiteke. Emakume horiek izan dituzten sozializazio-testuinguruak kontuan hartu behar dira, horrek eragina izan baitezake sinesmen batzuk barneratzeko joerarekin (familiaren garrantzia, zaintzarako subjektuak, genero-rolak eta horiek hausteagatiko zigorrak, diruaren kontrolik eza...). Ildo beretik, elkarrizketatutako emakumeek frankismoak euren sozializazio-prozesuetan izandako eragina azpimarratu dute, eta erlijioak ere indarkeria-egoerak mantentzeko izan duen eragina.

Horrez gain, bizitzako une horretan zaurgarriago egon daitezke: osasun-arazoak handitu daitezke, edota prekarietateak ere handitzeko joera dago. Faktore horiek ahalduntzeko aukerak muga ditzakete, eta bakartze soziala pairatzeko arriskuak handitu. Bestetik, indarkeriak ere bere berezitasunak ditu. Prozesu luze bateko indarkeria izan daiteke, adibidez, bizitza osoan zehar jasandakoa, edo zahartzaroan areagotutakoa. Eztabaida-taldeetan parte hartutako emakumeen esanetan, askotan bizi osoan zehar jasandako indarkeria baldin bada, zahartzaroan ugaritu egin daiteke. Izan ere, lehenago gizonek etxetik alde egiten zuten lan egitera, eta jubilatatu ondoren denbora gehiago ematen dute etxean, emakumeek arnasmune gutxiago dituztelarik.

Horren guztiaren aurrean, Damonti, Iturbide eta Amigotek (2020) honakoa proposatzen dute: esku-hartze berezitua, profesionaleri formazio berezia eskaintzea, sare sozial eta afektiboak indartzea, adineko emakumeen artean etxebizitzak partekatzea, adineko emakumeak ahalduntzeko ekintzak sustatzea eta indarkeria detektatzeko baliabideak indartzea (lehen mailako osasun-arreta zerbitzuetan, adibidez).



EE batzuk hasiak dira ildo horretan urratsak ematen. Basauriko Marienean, adibidez, adineko emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko formazio-saioak ematen hasi dira hainbat esparrutako langileei.

### **7.5. Elkarbizitza, elkarren arteko harremanak eta bakardadea**

Dudarik gabe, ikerketan parte hartu duten adineko emakumeek parte-hartze handia erakutsi izan dute gai sozial eta kulturalen inguruan. Elkarren arteko harremanak ezartzeko ezinbesteko ezaugarria, Del Vallek (2009) aipatzen duen bezala, asoziazionismoa ezinbestekoa baita emakumeen artean laguntza-sareak ezartzeko. Bestalde, aspektu honek adineko emakumeen inguruan gizartean orokorrean aski zabaldua dagoen estereotipoa apurtzen du, adineko emakume pasiboaren irudiarena, alegia. Aipagarria da aurreiritzi hori adineko emakumeen artean ere antzeman izan dela, lehenago esan bezala, norberarena baino parte-hartze sozial gutxiago erakusten duten emakumeak “besteak” direla aipatuz edo zaharragotzat hartuz. Aurreiritzia zaintza-lanetara berariaz dedikatu izan direnei ere aplikatzen diete.

Eztabaida-talde guztietan ikusi den bezala, adineko emakumeak oso kritikoak dira gizarte-antolakuntzarekin, eta bidegabekerien aurrean “zerbait egiteko beharra” sentitzen dutela aipatzen dute. Helburu horrekin, hainbat elkarte politiko, sozial eta kulturaletan hartzen dute parte, modu aktiboan. Guztien artean, arestian esan bezala, aipatzekoak dira pentsiodunen aldarrikapenak. Gehienetan, gaztaroan eta helduaroan harreman sozialak izateko eta militatzeko joera izan dutenek horrela jarraitzen dute zahartzaroan ere. Freixasek (2009) baieztatzen duen moduan, gizartean parte hartzen duten emakumeak arlo publikoko inplikazio sozialaren ibilbideetatik datoz, alegia, militantziaren edo parte hartzearen kultura baten aurrean gaudela, bai eta haren forma desberdinen aurrean ere (2009: 72).

Izaera politikorik ez duten bestelako ekintzen inguruan elkartzeko joera ere nabaria da adineko emakumeen artean. Besteekin egoteko, harreman sozialak egiteko eta orokorrean, sartzeko estrategiak anitzak dira. Zentzu horretan, aisialdirako aukera kolektiboak bilatzen dira. Horrelako jarrerak, orokorrean, etengabeko ikasketa prozesuetan murgilduta egoteko eta ezagutza berriak bereganatzeko aukerak ematen dituzte (Freixas, 2009). Orokorrean, ahalduntze pertsonala eta kolektiboa sustatzen duten ekintzekiko interes handia erakusten dute, EEetako eta ahalduntze-eskoletako ekintza eta tailerretan parte hartzeko duten joera ikusita. Harreman sozialak izateko joera hori, hain zabaldua dagoena, zahartzaroaren eragin ezkorren aurrean faktore babesgarria dela dio Ramosek (2015).

Hala eta guztiz ere, bakardadea ere agertzen da adineko emakumeen errealitatearen ezaugarri gisa. Bakardadea adineko emakume askoren errealitatea da, askotan, prekarietate ekonomikoarekin eta pobrezia-egoerekin batera agertzen dena. Bakardadea inposatutakoa denean, modu ezkorrean bizi da, eta eztabaida-taldeetan, sarri, beste emakume batzuen errealitate bezala identifikatu da: prekarietatean bizi direnena edo emakume zaharrenena. Freixasen aburuz (2018), harreman sozialek emakumeentzat duten garrantziagatik, bakardade-egoerak modu ezkorrean bizitzeko arrisku handia dago, haiengan presio kultural eta sozial

handia baitago zentzu honetan. Baina eztabaida-taldeetan agertu izan den bezala ere, bakardadea askotan gozatu egiten da, askatasunerako eta autonomiarako aukera ematen duen garai bezala bizi denean. Bakardadea, beraz, egoera ahalbidetzailea ere bada, emakumeek askatasun eta autonomia sentipen handi batekin lotzen dutena, beraien buruekin elkartzeko momentua (Ramos, 2015: 159).

Askotan, etorkizun hurbilaz kezkatuta daude. Ez soilik bakarrik bizitzeak ekar ditzakeen ondorioengatik, baizik eta gaixotasun edo menpekotasun egoera bat pairatu ezker, sistemak aurreikusita dituen aukeren aurrean oso kritikoak direlako (orokorrean, zerbitzu sozialen eskaintzez ari dira, bereziki, erresidentzien sistemaz). Kezka horien aurrean, feminismitik ere elkarbizitzeko hainbat aukera uztartzen ari dira<sup>14</sup>. Eztabaida-taldeetan ere *cohousing* bezalako eredu alternatiboez mintzatu dira, baina horren inguruan eszeptiko agertu dira, klase sozialarekin edo utopiarekin lotutako proiektuak direla esanez.

Laburbilduz, elkarbizitza eta elkarren arteko harremanak ezinbestekoak dira zahartzaroan, orokorrean, eta, bereziki, emakumeen kasuan. Alde batetik, beraien bizitzako garai ezberdinetan erakutsi duten joera orokorrari jarraipena ematen diotelako, eta, bestaldetik, zahartzaroak ekar ditzakeen zailtasun gehigarrien aurrean faktore babeslea izan daitekeelako. Besteak ondoan izanik, besteengandik ikasiz. Horregatik, genealogia feministak berreskuratzeari garrantzi handia eman zaio.

## 7.6. Osasuna, ongizatea eta sexualitatea

Ramosek honakoa idatzi du adineko emakumeen osasun-egoeraz:

*“Emakumeek bizitza luzeagoa duten arren, gaixotasun kroniko eta gaitasungabetzaile eta urritasun gehiago pairatzen dituzte gizonak baino (...) la herrialde guztietan (...) adineko emakumeek neurri handiagoan izan ohi dituzte minarekin, hezurretako eta artikulazioetako patologiekin, hipertentsioarekin, diabetesarekin, zirkulazio-gaixotasunekin, ikusmen-narriadurekin eta depresioarekin lotutako sintoma orokorrak, eta gehiago sufritzen dituzte erorikoekin lotutako osasun-arazoak (...) norberaren osasun-egoeraren pertzepzioak balorazio objektiboarekin zerikusia du, pairatutako gaixotasun errealean bitartez, eta baita balorazio subjektiboarekin ere, eta horretan ezaugarri pertsonalek hartzen dute parte, esate baterako: generoak, adinak, egoera zibilak, hezkuntza-mailak, diru-sarrerek, estatus sozialak, egoitza-habitat-ak, e.a.” (2015: 279).*

Freixasek, bere aldetik, hiru gai nabarmendu ditu eremu honetan: (1) arreta medikoa haien beharrei egokiturik ez egotea; (2) iruditeria eta moral atzerakoia tarteko, esperimentatzen diren gabeziak maitasunaren eta sexualitatearen arloan; eta (3) lehenago aipatu dugun aitortza gabeko zaintzaile izatea (2005-06: 16). Eta gehitu du, horren guztiaren aurrean, emakumeak

<sup>14</sup> Ikus, adibidez, lehenago aipatu dugun Mogollón eta Fernández (2016), non Europa mailan martxan dauden adinekoentzako etxebizitza kolaboratibo ezberdinen uztarketa feminista egiten duten.

aktibo eta jakin-minez mantendu ohi direla eta prest agertzen direla ikastaroetan, hitzaldietan edo osasunarekin loturik dagoen edozein jardueratan parte hartzeko. Horrek mesede handia egiten dio haien osasun fisiko eta mentalari, zentzu zabalean ulertuta, non ongizaterako egiten den edozein jarduera sartuko litzatekeen, hala nola elikadura edota ariketa fisikoa (paseatzea, kirola egitea...).

Beraz, ez da kasualitatea gerontologia feministak jorratu dituen gaien artean osasunak eta, oro har, gorputzarekin eta plazerarekin loturiko gaiak ohorezko lekua izatea. Ez da kasualitatea ere, guk burutu dugun diagnostikoan, oinarrizko guraria ere izatea. Era berean, elkarriketatuek bizitzaren une horretara egokitzen diren edukiei buruzko informazio eta formazio gehiago jasotzearen falta nabari dute, eta ikastaroak, tailerrak edo bestelako proposamenak eskatu dituzte.

Emakume nagusien sexualitateari dagokionez ere, Freixas da erreferente nagusietako bat Espainiako estatuan. *Sin reglas. Erótica y libertad femenina en la madurez* (2018) liburuan, adin horretako sexualitatearen inguruko teoriak eta aurreiritziak aztertu ditu, eta emakume asko eta askotarikoei egindako elkarrizketen emaitzak plazaratu ditu, haien artean dagoen aniztasuna nabarmenduz. Oinarrizko ideien artean, emakume zaharren sexualitatea “ondoan gordetako sekretua” dela azpimarratu du, nahiz eta adin horretan gozatu ahal izatearen kontrako ebidentzia zientifikorik ez egon. Eta “legitimatutako plazer eremu propioa eraikitzea” (2009: 201) aldarrikatu du Bárbara Luque Salasekin batera egindako beste artikulu batean:

*“Gaztaroko edertasunaren iruditeria bezalako elementuak direla-eta, adineko emakumeek ezin dute nagusitako emakumearen gorputzarekin identifikatu (...) Bestalde, heziketaren zurruntasuna dela-eta, emakumeak inhibitu egiten dira plazera ematen diena iradokitze-ko garaian; are gutxiago ausartzen dira desioa erakusten (...) Sexualitatearekiko harreman mota honek, ukazioaren eta lotsaren arteko nahasketa honek, espazio huts batean kokatzen du adineko emakumeen sexualitatea, eta zaila da hortik irtetea (...) Amaitzeko, baietza genezake, adinekoa izan eta bizitza sexual gogobetegarria izatea ez dela berez, erraztasunez gertatzen den zerbait (...) Askok dago aztertze eta, batez ere, asko izendatzeko, adineko emakumeen sexualitatearen esparruan” (2018: 201).*

Horren guztiaren bestaldean, deigarria egin zaigu zer gutxi hitz egin duten elkarrizketatutako emakumeek heriotzari buruz. Guk atera ezean, gaia ez da berez solasaldietan ageri izan, eta atera dugunean ere, nahiko labur jardun dute horren inguruan. Edonola ere, esan behar da Derecho a Morir Dignamente/DMD erakundearen partaideen eta arduradunen gehiengoa emakumeak direla, beraz, emakumeek badutela gai horrekiko interes propioa ere.

## 7.7. Teknologia berriak eta arrakala digitala

Gai honi heltzeko, ezinbestekoa da gure gizartean gertatzen diren bi fenomeno aipatzea: batetik, gizartearen zahartze-prozesu orokorra eta, bestetik, bizitzaren digitalizazioa eta te-



knologia berrien erabileraren ugartzea (Pino, Rodríguez eta Soto, 2015). Errealitate horiek ezberdintasun sozialetarako abaguneak eta arrakalak sortzen dituzte.

Teknologia berrietarako sarbidea dutenen eta ez dutenen artean sortzen den alderaketa da arrakala digitala (Sunkel eta Ullmann, 2019). Bereziki nabaria da garai digitalean jaio direnen eta ez direnen artean. Arrakala digitala adineko pertsonen eta gainerako herritarren artean gertatzen denean, bazterketa sozialerako faktore gako bihur daiteke, adin horretan dauden beste arazo batzuekin uztar daiteke eta baztertze arriskua handitu (Herrero eta Gracia, 2009). Informazioaren gizartean, adineko pertsonena da eremu digitalean bazterketa soziala jasateko arriskurik handiena duen kolektiboa (ibidem). Arrakala digitalean, adinaz gain, generoak ere badu eraginik. Oro har, hainbat ikerketaren arabera, emakumeek teknologia berrien erabilpen urriagoa egiten dute (Santiago, 2015). Hortaz, adineko emakumeek arrakala digital bikoitzari aurre egin behar diote.

Zentzu horretan, gizartearen dinamikak ikusirik, emakumeek teknologia berriak erabiltzen jakitea oso garrantzitsua dela uste dute eztabaida-taldeetan. Gehienek teknologia berrien inguruko ikastaroak egin dituzte. Halaber, adierazten dute ikastaro horiek batzuetan oso laburrak izaten direla, eta, jarraikortasun ezaren eta erabilpen ezaren ondorioz, erraz ahazten zaiela ikasitakoa. Horrez gain, teknologia berriak etengabeko eraldatze prozesu bizietan egonik, emakumeek diote zaila egiten zaiela erritmo horiek jarraitzea: “gauza bat ikasi orduko, beste bat ateratzen da”.

Arrakala digitala COVID-19aren konfinamendu garaian nabarmendu dute emakume hauek, bereziki, baina, horretaz gain, egunerokotasunean, gizartearen eta, batez ere, hainbat instituzioren digitalizazio joerari ere aurre egin behar diote. Adineko emakume askok gehiegizko digitalizazio horren aurrean hainbat oztopo aurkitzen dituzte, esate baterako, bankuan zentzibait izapide egin behar dituztenean. Hainbat instituzio publiko zein pribaturekin harremanak izateko, bitarteko digitalak gailendu dira, eta arrakala digital bikoitz hori handitu egiten du horrek.

Esan dezakegu, alde batetik, teknologia berrietan formatzeak eta murgiltzeak badituela onurak adineko pertsonentzat: garapen pertsonala eta soziala eta bizi kalitatea hobetu, interakzio- eta komunikazio-eremuak zabaldu, informazio ezberdinetara iritsi, autoestimua maila hazi, bakardadeak eragiten dituen beldurrak gainditu, belaunaldien arteko harremanak sustatu eta autonomia pertsonal eta soziala handitu (Pino, Rodríguez eta Soto, 2015). Baina, beste alde batetik, instituzioek eta entitateek ere, adineko pertsonen eta, bereziki, emakumei arlo honetan laguntza eskaintzeaz gain, ohikoa bihurtu den komunikazio eta tramitazio digitalaren kultura berrikusi beharko lukete.

## 7.8. Plazera eta aisialdia

Sara Ahmedek (2015) idatzi du feminismoak aurrera egiten duela jaso, aztertu eta aurre egin behar izan dituen bidegabekeria eta indarkeria ugariak sorrarazitako minezko historia luze

bat bere gain hartuta. Izan ere, teoria eta politika feministen foku nagusia bizipen eta ekintza horietan kokatuta egon da. Halere, plazera bada feminismoaren egunerokotasunaren ardatz nagusi bat ere, politika mailan bidegabakeriek duten erdiguneko kokapen bera hartu ez arren.

Bada, egunotan, Emma Goldman pentsalari eta sufragista feministak aspaldi esandako esaldi ezagun hori –“ezin badut dantza egin, hau ez da nire iraultza”<sup>15</sup>- berreskuratzen ari gara. Horrela, hainbat autore plazerean sakontzearen garrantzia defendatzen ari dira (Olivella eta Porroche, 2012; Cornwall, Hawkins eta Jolly, 2013; Muelas, 2018), ez bakarrik feministen bizitza eta esperientzia modu zabalago eta osatuagoan ulertze aldera, baizik eta mugimenduak bultzatu dituen praktika eraldatzaileak era egokiagoan identifikatu, aztertu eta sustatu ahal izateko (Muelas, 2018). Hain zuzen, feminismoak ekintza-borroka eta jaia-dibertzioa nahastu ditu etengabe haren ibilbidean, eta haren aldarri nagusien atzean bizitzaz gozatzeko eskubi-dea egon da. Barreak berak ohorezko lekua dauka politika eta ekintza feministetan, daukan gozameneko dimentsioagatik, baina baita alderdi transgreditzaile eta eraldatzaileagatik ere, batez ere, taldean praktikatzen denean.

Emakumeen Etxeetan ere, plazerarekin loturiko ekimen ugari topa daitezke, gozamen sexualari buruzko tailer eta mintegietatik hasi eta noiz edo noiz antolatzen diren kontzertu, jai eta ospakizun guztietaraino.

Aurkezten ari garen diagnostikoan parte hartu dutenei ere askoz errazago egin zaie bidegabekeriei eta minari erreparatzea, plazerari baino. Halere, azpimarratu egin dute Emakumeen Etxeetako ekitaldi eta jardueretan eta aisialdian sentitu ohi duten atsegina, hala nola hitzaldi bat entzutean, ikastaro batean parte hartzean, arte eta kultur-ekitaldietara joatean edo elkarrekin ariketa egitean.

## 7.9. Adineko emakumeen aitortza, memoria eta genealogia feminista

Ardatzen zerrenda hau elkarriketa eta eztabaida-talde guztietan agertu den gai batekin bukatuko dugu: adineko emakumeen historiaren aitortza eta memoria eta genealogia egitearen beharra.

Emakumeen eta feministen genealogia egiterakoan, feminismoaren tradizio teorikoa, memoria historikoa eta eraldaketarako praxia berreskuratzen ditugu. Del Vallek (1995) idatzi du, memoria eraikitzean, iragana-orainaldia-etorkizuna fluxua aktibatu egiten dela eta horrek eragin handia duela genero-identitateen sorreran. Ildo beretik, Miren Llona (2009) historialariak adierazi du:

*“Gogoratzeko jardunari esker, posible da iraganarekin lotura bat ezartzea, oraina interpretatzen lagunduko diguna eta etorkizuna bideratzen. Indibidualki egin ohi dugun lana da hori, baina kolektiboki ere egin dezakegu, mugimendu feminista gisa” (2009: 35).*


15 Esaldi horretan oinarrituta, Jane Barryk eta Jelena Dordevicck ¿Qué sentido tiene la revolución si no podemos bailar? (2010) liburua idatzi zuten, nazioarteko mailako langintzaren arlokoa.

Adineko emakumeak kontziente dira beraien historia, beraien memoria ez dagoela jasota, nahiz eta EEetan zenbait ekimen abian jarri izan. Horregatik, eremu honetako jarduerak bultzatzea proposatu dituzte. Zenbait eztabaida-taldetan haratago joan dira, emakumeen memoria eta eskarmentu hori herrietako maila desberdinetan erabil daitekeela esanez, hala nola eskoletako irakats-edukiak osatu ahal izateko. Ildo beretik, azpimarratu dute beraien memoria eta ondare hori feminista gazteekin ere partekatu behar dela, gazteekiko solasa/formazioa eta belaunaldiartekotasuna bera aberaste aldera, adinekoek gazteengandiko eza-gutza jasotzen duten era berean.

## 8. ADINEKO EMAKUMEEKIN LAN EGITEKO DEKALOGOA

Diagnostikoaren emaitzak aintzat hartuta, adineko emakumeekin lan egiteari begira aintzat hartu beharko lirakeen gaiak/ardatzak zehazten saiatu gara aurreko atalean. Oraingo honetan, informazio hori osatzeko, esku-hartze horretako gako edo aspektu metodologikoak izango lirakeenak azalduko ditugu. Horretarako gakoien dekalogo hau sortu dugu:

1. **Berariazko esku-hartzeak, politikak eta aurrekontuak sortu:** adineko emakumeen beharrian espezifikoak detektatzen jarraitzeko ahalegina egin behar da. Zahartzaroan berariazko politika feministak abiatzeko bideak zabaldu behar dira. EEetatik eta, orokorrean, berdintasun politiketatik beste kolektibo batzuekin egiten den bezala, adineko emakumeentzako lanketa eta interbentzio eredu berariazkoak sortu behar dira, baita diru-lerro espezifikoak ireki ere.
2. **Adinkeriari aurre egin:** zahartzaroan, populazioak eta, bereziki, emakumeek jasaten duten adinkeria eta eskubide-urraketari buruz kontzientzia soziala erein eta irtenbideak topatu behar dira.
3. **Zahar-identitate kolektiboa sustatu:** adineko emakume moduan identifikatzeko hainbat estereotipo eta aurreiritzi daude. Adineko emakume edo zahar identitatea garatu beharra dago, subjektu politiko horren eraikuntzarako, bai eta adineko emakumeen beharrak eta aldarrikapenak identifikatzeko ere.
4. **Interseksionalitatea kontuan izan:** adinarekin eta generoarekin batera, bestelako aldagaiek (klase sozialak, arrazializazioak, sexualitateak...) sortzen dituzten beharrian espezifikoak eta desberdintasun egoerak aintzat hartu behar dira. Kontuan izan behar da kolektibo honek ezaugarri duen anizkoiztasuna.



- 5. Ikusgaitasuna bermatu:** eremu guztietan adineko emakumeen ikusgaitasuna bermatu behar da, kanpainen zein edozein arloko emakumeen irudikapenetan.
- 6. Belaunaldiartekotasuna elikatu:** belaunaldi ezberdinen arteko harremanak garatzeko gune eta uneak sortu behar dira edo daudenak zaindu, elkarren parte-hartze kolektiboa bermatu eta belaunaldi ezberdinetako emakumeen arteko konplizitateak sortuz eta indartuz.
- 7. Ahalduntze indibidual eta kolektiboa garatu:** adineko emakumeen ahalduntzea bera sustatu behar da, beraiek izanik beraien prozesuaren aitzindariak (esperientzien eskola, gaitasunen elkartrukea, e.a. bezalako ekimenak). Sustatutako esku-hartze ereduak berak talde-nortasuna indartzeko balio beharko luke eta bidea ireki kolektiboaren ahalduntzerako. Ahalduntzerako dinamika ezberdinak aurrera eramanez, adibidez, talde autonomoak eta sareak bultzatzea, ez bakarrik ikastaroak.
- 8. Errekonozimendua sustatu:** balorazioa/iritzia baliatzea gizartearen hutsune orokorrrak identifikatzeko, bai eta adineko emakumeen esperientzia balioestea ere: aitortza, emakumeen memoria, herriaren memoria... Azken batean, genealogia feminista berreskuratzea beharrezkoa da.
- 9. Berezko espazioak eratu edota daudenak zaindu:** Emakumeen Etxeetan adineko emakumeentzako espazioak sortzea beharrezkoa da, eta beraientzat interesgarriak izan daitezkeen gaien inguruko eztabaida feministak sustatzea bertan. Era berean, adineko emakumeak biltzen diren bestelako espazioetan ere eragin behar da. Adineko emakumeen elkarte propioak babestu eta indartu, Emakumeen Etxeetan adinekoentzako espazio berezituak sortu eta elkarte feministetan adinari dagozkion gogoe-tak eta kezkak aintzat hartu.
- 10. Asistentzialismotik haratago joan:** kolektibo zaugarri honi laguntza eta babesa eskaintzeaz gain, aldaketa soziala bermatuko duten ekintzak garatu behar dira, non adineko emakumeak protagonistak diren eta euren parte-hartzea eta sozialki aktibo mantentzearen garrantzia azpimarratzen den.

## 9. JARDUTE EREMUAK

Proposamen hau bukatzeko, aurrez zehaztutako ardatzetan premiazkoak diren helburuak erdieste aldera, jardute-eremuak zerrendatuko ditugu, betiere aipatutako gakoak aintzat hartuz.

Bost jardute-eremu identifikatu ditugu:

- **Maila orokorra eta publikoa.** Bai erakundeetatik, bai Emakumeen Etxetatik edo emakumeen elkarteetatik gizarte osora proiektatu behar diren ekimen eta kanpaina publikoak. Maila honetan, lantzeko gaiak adinkeria eta eskubide-urraketarekin zerikusia duten aspektuak izan daitezke, baina baita bestelakoak ere: pobreziari buruzko datuak, adibidez, zaintza arloan sustatu beharreko egiturazko aldaketak edo indarkeria matxistaren ikusezintasuna.
- **Adineko emakumeentzako berariazko elkarteak eta espazioak.** Elkarte eta gune hauek sortu edota bereziki zaindu behar dira, baliagarriak baitira, politika egiteko ez ezik, emakumeen arteko sareak sendotzeko eta bultzatzeko ere. Era berean, elkarte eta espazio hauetatik adinekoren beste elkarteekiko aliantzak sendotu behar dira, hala nola pentsiodunen mugimendurekin.
- **Emakumeen Etxetako eta berdintasun- eta ongizate-zerbitzuak.** Adin horretako premiei aurre egitea nahitaezkoa da, adibidez, indarkeria matxistari dagokionez. Arretarekin batera, profesionalen formazioa ere bultzatu behar da.
- **Ahalduntze-eskoletako egitarauak.** Adineko emakumeei zuzendutako askotariko ikastaro eta jarduerak antolatu behar dira, esate baterako, osasunari eta sexualitateari dagokienez.
- **Udal-instituzio eta zentroekiko aliantzak.** Berdintasun-arloen eta herrietako bestelako instituzioen eta entitateen arteko aliantzak (osasungintza, gizarte-langintza, hezkuntza, kultura...) bultzatzea ere funtsezkoa da.

Proposamen hau bukatzeko, nabarmendu behar dugu hasieratik bagenekiela ez ginela zero-tik abiatzen, lan honetan jasota gelditu den moduan. Azken urteotan, Emakumeen Etxetatik hainbat ekintza eta jarduera abian jarri dira, guztiak ala guztiak edozein ekimen aurrera eramateko aintzat hartu beharrekoak. Halere, uste dugu asko dagoela egiteko arlo honetan eta lan-lerro espezifiko bat diseinatu eta indarrean jarri behar dela. Espero dugu egin dugun lan hau lagungarria izatea bide horretan.



## 10. BIBLIOGRAFIA

- Adimen Investigación (2012) *La autonomía de las mujeres "mayores" en el País Vasco y su contribución a los procesos de empoderamiento*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde.
- Barry, Jane eta Jelena Dordevic (2010) *¿Qué sentido tiene la revolución si no podemos bailar?* Bartzelona: Horas y horas.
- Bazo, María Teresa (2002) Mujer y vejez. *Revista Emakunde. Envejecer en femenino plural*, 46: 8-10.
- Butler, Robert (1969). Ageism: Another form of bigotry. *The Gerontologist*, 9: 243-246.
- Colectivo IOE (1995) *Cuidados en la vejez. El apoyo informal*. Madril: IMSERSO, CIS.
- Cornwall, A., Hawkins, K. eta Jolly, S. (ed.) (2013) *Women, Sexuality and the Political Power of Pleasure*. London/New York: Zed Books.
- Damonti, Paola; Iturbide, Rut; Amigot, Patricia (2020) *Violencia contra las mujeres mayores. Interacción del sexismo y edadismo*. 2018. Instituto Navarro para la Igualdad/Nafarroako Berdintasunerako Institutua.
- De Beauvoir, Simone (1983) *La vejez*. Bartzelona: Edhasa.
- Del Valle, Teresa (1995) Identidad, memoria y juegos de poder. In: Maceira Ochoa, L.; Rayas Velasco, L. (ed.) *Memoria social y género. Ataduras y reflexiones*. Mexiko: Juan Pablos Editor/Escuela Nacional de Antropología e Historia/Fondo Nacional para la Cultura y las Artes, 69-86.
- Del Valle, Teresa (1997) *Andamios para una nueva ciudad*. Madril: Alianza.
- Del Valle, Teresa (2009) Personas mayores y ciudad: Vivencias y significados del espacio. In: Martínez, A., Gil, L., Serrano, P., Ramos, J. (koord.) *Nuevas miradas sobre el envejecimiento*. Madril: IMSERSO, Ministerio de Sanidad y Política Social, 271-294.
- Del Valle, Teresa (koord.) (2002) *Modelos emergentes en los sistemas y las relaciones de género*. Madril: Narcea.
- Doress-Worters, Paula Brown, Siegal, Diana Laskin, eta The Boston Women's Health Book Collective (1993[1987]) *Envejecer juntas*. Bartzelona: Paidós.
- Durán Heras, María Ángeles (1983) *Desigualdad social y enfermedad*. Madril: Tecnos.
- Durán Heras, María Ángeles (2002) *Los costes invisibles de la enfermedad*. Bilbao: Fundación BBVA.

- Durán Heras, María Ángeles (2018) *La riqueza invisible del cuidado*. Valentzia: Universidad de Valencia.
- Eskisabel Larrañaga, Idurre (2018) *Goseak janak*. Zarautz: Susa.
- Esteban, Mari Luz (2019) *Andrezaharraren manifestua*. Iruñea: Pamiela.
- Feixa, Carles (1996) Antropología de las edades. In: Prats, J.; Martínez, A. (ed.) *Ensayos de Antropología Cultural. Homenaje a Claudio Esteva-Fabregat*. Bartzelona: Editorial Ariel, 319-335.
- Fericgla, Josep M. (1992) *Envejecer. Una antropología de la ancianidad*. Bartzelona: Anthropos.
- Fernández Savater, Amador (2020ko ekainaren 19a) Estar raros, contra la vieja y la nueva normalidad. *ElDiario.es*. [https://www.eldiario.es/interferencias/raros\\_132\\_6064094.html](https://www.eldiario.es/interferencias/raros_132_6064094.html)
- Freixas Farré, Anna (1991) Autopercepción del proceso de envejecimiento en la mujer entre 50 y 60 años. *Anuario de Psicología*, 50: 67-78
- Freixas Farré, Anna (1997) Envejecimiento y género: otras perspectivas necesarias. *Anuario de Psicología*, 73: 31-42.
- Freixas Farré, Anna (2005-06) Gerontología feminista: comprender la compleja y sutil vida de las mujeres mayores. *MyS/Mujeres y Salud*, 17: 16.
- Freixas Farré, Anna (2007) Gerontología feminista: vejez y mujeres, miradas imprescindibles. *Libro de Actas de las Jornadas andaluzas Mujer y salud*. Sevilla: Instituto Andaluz de la Mujer.
- Freixas Farré, Anna (2008) La vida de las mujeres mayores a la luz de la gerontología feminista. *Anuario de Psicología*, 39 (1): 41-57.
- Freixas Farré, Anna (2009) El ciclo vital revisado: las vidas de las mujeres mayores a la luz de los cambios sociales. *Revista de Pensament i anàlisi*, 9: 59-80.
- Freixas Farré, Anna (2013) *Tan frescas: nuevas mujeres mayores del siglo xxi*. Bartzelona: Paidós.
- Freixas Farré, Anna (2018a) *Sin reglas: erótica y libertad femenina en la madurez*. Madril: Capitán Swing.
- Freixas Farré, Anna (2018b) Estrategias para la vida en la cuarta edad. *Prisma Social*, 21: 1-27
- Freixas Farré, Anna eta Bárbara Luque Salas (2009) El secreto mejor guardado: la sexualidad de las mujeres mayores. *Política y Sociedad*, 46(1-2): 191-203.
- García-Mina, Ana (2002) La influencia de la edad en la percepción de los estereotipos del rol de género: In: Ortega López, M.; Pérez Cantó, M. P. (ed.) (2002) *Las edades de las mujeres*. Madril: Instituto Universitario de los Estudios de la Mujer.

- González, Herminia eta Lube, Menara (2020) Las mujeres y el envejecimiento en la investigación social (1950-2018). *Revista Estudios Feministas, Florianópolis*, 28(1): e58497.
- Gracia Ibáñez, J. (2015) Una mirada interseccional sobre la violencia de género contra las mujeres mayores. *Oñati Socio-legal Series*, 5(2): 547-569.
- Gracia Ibáñez, J. (2016) Una panorámica sobre la violencia familiar y de género contra las mujeres mayores. *Aequalitas*, 38: 45-50.
- Herrero, J.; Gracia, E. (2009) La sociabilidad de las personas mayores en Internet. *Crítica*, 959: 67-72.
- Llona, Miren (2009) Los usos de la memoria para el feminismo. *Viento Sur*, 104: 35-42.
- Maquieira d'Angelo, Virginia (koord.) (2002) *Mujeres mayores en el siglo xxi: de la invisibilidad al protagonismo*. Madrid: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.
- Martínez, Luz M<sup>a</sup>; Biglia, Barbara; Luxán, Marta, Fernández Bessa, Cristina; Azpiazu Carballo, Jokin; Bonet Martí, Jordi (2014) Experiencias de investigación feminista: propuestas y reflexiones metodológicas. *Athenea Digital*, 14(4): 3-16. <http://dx.doi.org/10.5565/rev/athenea.1513>
- Mogollón García, Irati; Fernández Cubero, Ana (2016) Arquitecturas del cuidado. Viviendas colaborativas para personas mayores. Un acercamiento al contexto vasco y las realidades europeas. Vitoria-Gasteiz: Emakunde. [https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_bekak/es\\_def/adjuntos/beca.2015.1.arquitecturas.del.cuidado.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_bekak/es_def/adjuntos/beca.2015.1.arquitecturas.del.cuidado.pdf)
- Muelas de Ayala, Laura (2018). Una mirada a las fiestas desde la antropología feminista: el placer como proceso creativo y espacio político. In: *Etnografías feministas. Una mirada al siglo xxi desde la antropología vasca*. Esteban, M. L.; Hernández García, J. M. (ed.) Bartzelona: Edicions Bellaterra, 273-293.
- Neugarten, Bernice L. (1999) *Los significados de la edad*. Bartzelona: Herder.
- Olivella, María; Porroche, Ana (2012) Mujeres, placer sexual y empoderamiento: reflexiones desde el trabajo de campo. Comunicación presentada en el *XIV Seminario de Autoformación de la RED-CAPS*, 2012ko azaroaren 9a, Bartzelona. Testu argitaragabea.
- Pérez Ortiz, Lourdes (2003) *Envejecer en femenino: las mujeres mayores en España a comienzos del siglo xxi*. Serie Estudios, 81. Madrid, Instituto de la Mujer.
- Pino Juste, M. R., Rodríguez López, B. eta Soto Carballo, J. G. (2015) Las personas mayores y las TIC. Un compromiso para reducir la brecha digital. *Pedagogía Social. Revista Interuniversitaria*, 26: 337-359.



- Prieto, Daniel et al. (2009) *Las dimensiones subjetivas del envejecimiento*. Colección Estudios, Serie Personas Mayores, 11.007. Madril.
- Ramos, Mónica (2015) *Mujeres mayores: Estudio sobre sus necesidades, contribuciones al desarrollo y participación social*. Doktore-tesia. Madril: Universidad Autónoma de Madrid.
- Ramos, Mónica (2018) Estudio etnográfico sobre el envejecer de las mujeres mayores desde una perspectiva de género y de curso vital. *Prisma Social*, 21(2): 75-107.
- Roura, J., Díaz, A. L., Ruiz, A., Sanchez, C., Cortés, J. A. (2018) Repensando las prácticas académicas: el diseño colaborativo de un proyecto de investigación a partir de la metodología IAP. *Revista de Dialectología y Tradiciones Populares*, LXXIII, 2: 407-424.
- Santiago, María Jesús (2015) *La segunda brecha digital como un problema de desigualdad de género: un estudio de su evolución*. Doktore-tesia. Granada: Universidad de Granada.
- Sunkel, G, Ullmann, H. (2019) Las personas mayores de América Latina en la era digital: superación de la brecha digital. *Revista de la CEPAL*, 127: 243-267.
- Tobío, Constanza (2008) El papel de las abuelas cuando las madres trabajan. *Envejecimiento y salud desde una perspectiva de género. Actas de las II Jornadas Andaluzas de Envejecimiento y Salud*. Sevilla: Instituto Andaluz de la Mujer/Consejería para la Igualdad y Bienestar Social, 33-48.
- Yuni, José Alberto; Urbano, Ariel (2008) Envejecimiento y género: perspectivas teóricas y aproximaciones al envejecimiento femenino. *Revista Argentina de Sociología*, 6 (10): 151-169.

